

JARDUKETA GIDA OSASUN ARLOKO PROFESIONALENTZAT



GENERO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN EUSKADIN NOLA JARDUN JAKITEKO

JARDUKETA GIDA
OSASUN ARLOKO PROFESIONALENTZAT



GENERO INDARKERIAREN ETA
SEXU ERASOEN AURREAN
EUSKADIN NOLA JARDUN JAKITEKO

Argitaratzailea:

Osakidetza. Araba, 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Argitaraldia:

1., 2019ko maiatza

© Osakidetza
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Internet:

www.osakidetza.euskadi.eus

e-mail:

coordinacion@osakidetza.eus



AUORETZA EKARPENAK

AUORETZA

Ana Bustinduy Bascaran. Osakidetza. Debagoiena ESI. Arlo medikoko laguntza-koordinazioa.

María Sol Díaz González. Osakidetza. Bizkaiko Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala. Bilbo-Basurto ESI.

María José Goñi Agudo. Osakidetza. Donostialdea ESI. Laguntza-integrazioa.

Elida Grande Argudo. Osakidetza. Bizkaiko Osasun Mentalaren Sarea. Urbi 2 Osasun Mentaleko Zentroa.

Maximiano Gutiérrez Jodra. Osakidetza. Araba ESI. Zabalzana Osasun Zentroa.

Lucía Iñigo Regalado. Bioef. Antolaketa Berrikuntza eta Kudeaketa.

Maite Paino Ortuzar. Osakidetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendariordetza.

Catarina Paz Camaño. Bioef. Antolaketa Berrikuntza eta Kudeaketa

José Luis Quintas Díez. Osasun Saila. Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendariordetza.

José Antonio de la Rica Giménez. Osasun Saila. Euskadiko asistentzia soziosanitarioaren koordinazioa.

Miguel Sánchez Fernández. Osakidetza. Barrualde-Galdakao ESI. Larrialdietako Zerbitzua.

Amelia Valladolid Urdangaray. Osakidetza. Bilbo-Basurto ESI. Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzua.

Jon Zuazagoitia Nubla. Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

KANPOKO BERRIKUSPENA

Roberto Abad García. Osakidetza. Bilbo-Basurto ESI. Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko Erizaintza Zuzendariordetza.

Elena Aldasoro Unamuno. Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Sara Buesa Rodríguez. Vitoria-Gasteizko Udala. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.

Karmele Díez Saez. Osakidetza. Bilbo-Basurto ESI. Basurtoko Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzua.

Ana Estévez Gutiérrez. Deustuko Unibertsitatea. Psikologia Saila.

Maribel Labaca Polo. Osakidetza. Donostialdea ESI. Beraun Osasun Zentroa.

Izaskun Landaia. Emakunde.

Isabel Martínez González. Osakidetza. Bizkaiko Osasun Mentalaren Sarea. Zallako Osasun Mentaleko Zentroa.

Federico Melgosa Latorre. Osakidetza. Debagoiena ESI. Debagoieneko Ospitalea. Larrialdietako Zerbitzua.

Miren Ortubay Fuentes. Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU. Zuzenbide Publikoko Saila.

Luis Pacheco Yáñez. Osakidetza. Bizkaiko Osasun Mentalaren Sarea. Bilboko eskualdea.

Marisol Pérez de San Román Ruiz de Munain. Osakidetza. Araba ESI. Aranzabizkarra I Osasun Zentroa.

Guillermo Portero Lazkano. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua. Bizkaiko Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitatea.

Leire Sologuren. Emakunde.



AURKEZPENA

Mundu-mailan, emakumeen aurkako indarkeria da osasun publikoko arazo nagusi eta larrienetako bat, Osasunaren Mundu Erakundeak berak dioen moduan. Halaxe balioesten du Eusko Jaurlaritzak ere, eta horregatik txertatzen ditu politika guztietan, zeharka, bai berdintasun-kulturaren sustapena, bai genero-diskriminazioaren aurkako borroka. Ondorioz, EAEko osasun-sistemak konpromiso bat hartu du: indarkeria mota horren gainean jardungo du, indarkeria ezartzeko modua edozein izanik ere, emakume helduengan nahiz adingabeengan ezartzen denean. Osakidetzak protokoloen bidez, bertako profesionalak trebatuz eta, jakina, horrelako edozein indarkeria-adierazpen prebenitu, hauteman eta esku hartu ahal izateko sentsibilitate egokiarekin taxutzen du jarduera hori.

EAEko osasun publikoa garatzen ari den jarduketa-lerro horretan kokatzen da gida hau (2008an argitaratu zena eguneratzen du). Bada, osasun-arloko profesionali zuzenduta dago, EAEko genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean behar bezala joka dezaten. Izan ere, sarritan, eraso matxisten biktima diren emakumeek osasun-zerbitzuetako profesionalengana jotzen dute lehenik. Are, emakumeek beraiek aitortzen dute osasun-arloko langileek ematen dietela konfiantza handiena horrelako egoeretan. Gaur egun, genero-indarkeriaren gertakari ugari detektatzen dira Osakidetzan, eta prozedurak nahiz protokoloak hobetze aldera lan egiten jarraitzeko indarra ematen digu horrek.

Hala, kasu horietan jarduteko modua hobetzen jarraitu ahal izateko behar den ezagutza guztien eskura jartzea da «EAEko genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida» honen xedea, profesionaltasuna eta bikaintasunaren bilaketa konbinatzen baitira bertan.

Gida honen hitzaurrea idazteak ematen didan aukera baliatuko dut nire eskerrik beroena emateko hala gida egin dutenei, lanaren eta eskuzabaltasunaren eredua baitira, nola egunerokotasunean erabili eta praktikan jarriko dutenei.

Pertsona asko beren eragin-eremuan inplikaturik eta konpromisoa hartuta lortzen baitira gizarte-lorpen handienak. Hala, gida hau egin izanak eta erabiltzeak bultzada handia emango dio emakumeen aurkako indarkeria eta edozein sexu-eraso mota deuseztatzeko eman behar dugun urrats kolektiboari.

Nekane Murga
Osasuneko sailburua



AURKIBIDEA

0. AURKEZPENEA

1. SARRERA	15
2. ALDERDI KONTZEPTUALAK	21
1. ZER ULERTZEN DUGUN GENERO INDARKERIATZAT.....	21
1.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN SAILKAPENA	22
1.2. GENERO INDARKERIARI BURUZKO KONSTRUKTU TEORIKOAK.....	24
1.2.1. Sexu-genero harremanen eraikuntza genero-indarkeria bikotekidearen / bikotekide ohiaren esparruan ulertzekoa.....	24
1.2.2. Generoan oinarritutako botere-eredua.....	26
1.3. GENERO INDARKERIA BETIKOTZEN DUTEN MITOAK, ESTEREOTIPOAK ETA SINESMENAK.....	27
1.4. INDARKERIAREN PROZESUA.....	28
1.4.1. Indarkeriaren zikloa.....	28
1.4.2. Indarkeriaren goraldia	29
1.4.3. Emakumeen ibilbide kritikoa.....	30
2. ARAZOAREN HANDITASUNA.....	32
2.1. EPIDEMIOLOGIA.....	32
2.2. GENERO INDARKERIAREN ONDORIOAK.....	33
2.2.1. Emakumeen beren gaineko ondorioak.....	33
2.2.2. Seme-alabak. Haurren gaineko ondorioak	34
2.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KOSTU SOZIALAK.....	35
3. OSASUNEO PROFESIOALEN ESKU HARTZEAREN ALDERDI ETIKOAK.....	36
3.1. PRINTZIPIOAK ETA BALIO ETIKOAK.....	36
3.2. KALTEBERATASUNA	38
3.3. SALAKETA JUDIZIALAREN ALDERDI ETIKOAK.....	39
3. JARDUTEKO PROZESUA	43
A. OSASUN ESPARRUAN EMAKUMEEKIN	43
1. LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA.....	44
1.1. KALTEBERATASUN BEREZIKO EGOERAK IDENTIFIKATZEA	45

1.1.1. Haurdunaldia	46
1.1.2. Migrazioa	47
1.1.3. Aniztasun funtzionala	48
1.1.4. Nahasmendu mental larria (NML)	50
1.1.5. Adikzioak	51
1.1.6. Udalerri txikietan bizi direnak	52
1.1.7. Zahartzea	54
1.1.8. Sexu-esplotazioko eta emakumeen eta hurren salerosketako egoerak	55
2. BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA	56
2.1. DETEKZIO GOIZTIARREKO ESTRATEGIA: GALDETZEA	57
3. HIRUGARREN MAILAKO PREBENTZIOA	59
3.1. HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA	59
3.2. LAGUNTZEKO ETA JARRAITZEKO JARDUNA	62
3.3. "NOT TO DO" – Zer EZ EGIN genero-indarkeriaren ARRETAN	72
B. SEXU ERASOEN AURREAN	75
1. NON EMATEN ZAIEN ARRERA	75
2. NOLA EMATEN ZAIEN ARRERA	78
C. OSASUN ESPARRUAN GENERO INDARKERIAKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEN SEME ALABEKIN	85
D. OSASUN ESPARRUAN ERASOTZAILEEKIN	89
1. TRATU TXARREN EMAILEAREKIN ESKU HARTZEA	89
2. ESKU HARTZEKO PROGRAMAK	90
4. ARRETA SOZIOSANITARIOAREN KOORDINAZIOA	95
5. JARDUTEKO TESTUINGURUAK	103
1. TESTUINGURUA. LEHEN MAILAKO ARRETAKO KONTSULTATEGIKO EDO ETENGABEKO ARRETAKO GUNEKO (EAG) JARDUNA	103
2. TESTUINGURUA. ETXEKO LAGUNTZAKO JARDUNA	106
3. TESTUINGURUA. OSPITALEKO LARRIALDIETAKO HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA	109
4. TESTUINGURUA. OSPITALIZAZIOKO EDO OSPITALEKO KANPO KONTSULTAKO HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA	111
5. TESTUINGURUA. OSASUN MENTALEKO ZERBITZUKO JARDUNA. NAHASMENDU MENTAL LARRIA (NML)	113



6. GENERO INDARKERIAKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEI ARRETA EMATEN DIEN OSASUNeko PROFESIONALAREN ZAINKETA	119
7. TERMINOEN GLOSARIOA	125
8. ERANSKINA	139
1. ERANSKINA. ERREGISTROA.....	139
2. ERANSKINA. LESIOEN PARTEA.....	150
3. ERANSKINA. GALDERA ERRAZTAILEAK.....	159
4. ERANSKINA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ETA HAURREI ARRETA EMATEKO BALIABIDEAK.....	164
BIBLIOGRAFIA	169



1. kapitulua

SARRERA

1. SARRERA

Genero-indarkeria ez da fenomeno berria, baina duela gutxi samar hasi da ezagutzen eta ikusgai egiten, eta kontu pribatua izatetik arazo soziazat eta osasun-arazotzat jotzera igaro da.

Arazo horrek herrialdeak eta mugak gainditzen ditu, emakume guztiak hartzen ditu eraginpean, eta osasun publikoko arazotzat jotzen da osasunaren gainean duen eraginengatik. Emakumeen babes eta segurtasunerako legegintzako neurriak hartu badira ere, azken urteotan emakume asko erail dituzte.

Genero-indarkeria mundu-mailako arazoa da. Izan ere, hala aitortu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (48/104 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa), giza eskubideen eta emakumeen oinarritzko askatasunen urraketatzat jo zuenean. Berdintasunaren, garapenaren eta bakearen helburuak lortzeko ozttopoa da, Emakumei buruzko IV. Mundu Konferentzian adierazten den moduan. Osasunaren 49. Mundu Batzarrak mundu osoan gora egiten ari den osasun publikoko arazotzat hartu zuen emakumeen aurkako indarkeria (generoan oinarritutako indarkeria). Horrez gain, faktore erabakigarritzat jotzen du osasunaren narriadura, bai bere handitasunagatik bai ondorioengatik, eta gobernuari hertsatuki eskatzen die prebenitzeko eta desagerrarazteko baterako neurriak hartzeko.

Espainiako Estatuan, 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, zenbait esparrutan sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta detektatzeko neurriak ezartzen ditu, eta horien artean dago osasun-esparrua. Legearen 32. artikuluan jasotzen denez, esku hartzen duten administrazio eta zerbitzu guztiek batera eta oso-osoa jardutea ziurtatuko duten jarduteko protokoloak garatu behar dira.

Geroztik, Espainiako Estatuan indarrean jarri da emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulen Hitzarmena), 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen sinatua, genero-indarkeria giza eskubideen urraketatzat eta diskriminazio-modutzat jotzen duena, eta estatuak erantzuletzat jotzen ditu hari egoki erantzuten ez badiote. Delitutzat hartzen dira emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiak: indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala, bortxaketa barne; emakumeen genitalen mutilazioa; ezkontza behartua; jazarpena; abortu behartua; eta antzutzeko behartua.

Istanbulen Hitzarmenak eta Europako Parlamentuaren 2012/29/EB Zuzentarauak delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxienezko arauak eta genero-indarkeriari erantzuteko irizpide berriak ezartzen dituzte.

Jarduteko gida hau funtsezkoa da arazo soziosanitario horretako inplikazioa hobetzeko. Izan ere, orain arteko gomendioak eguneratu eta areagotu egiten ditu eta

legegintzan izan diren aldaketetara egokitu da, efektiboagoa eta eraginkorragoa izan dadin. Horiek horrela, gida honek biktimarekin bizi diren adingabeak indarkeriaren zuzeneko biktimatza hartzen ditu.

Gida honen helburua da osasuneko langileak sentsibilizatzea eta gure testuinguruan genero-indarkeriako kasuen detekzio goiztiarrean inplikatzeko, eta, orobat, profesionalen osasun-esparrutik esku hartzeko irizpideak homogeneizatzen lagunduko duen lanerako tresna bat ezartzea. Estrategia erkideak, jakintza, orientabideak eta baliabideak eskaintzen ditu, osasuneko profesionalen arreta integratua eman diezaieten arazo hori jasaten duten emakumeei, eta, hartara, aurre egiteko aukera izan dezaten.

Egoera horietan esku hartu ahal izateko, jakin beharra dago gizon eta emakume izateari buruz gogoeta egitea, zalantza jartzea eta jarrera hartzea eskatzen duten aldaketak daudela maila pertsonalean; gogoan izan behar da portaeran, jarreretan eta sinesmenetan joera sexistak daudela egunegun. Genero-agindu horiek eraginpean eta baldintzapean jartzen dute indarkeria-egoerentzako erantzuna. Hala, ahalduntzea eta genero-berdintasuna ezinbestekoak dira indarkeriarik gabeko gizartearen eraikitzeak, emakumeen eskubideak urratuko ez dituen eta gizonek boterearen banaketa berdintasunez partekatuko duten gizartearen eraikitzeko. "Emakumeek beren bizitzaren aktore eta autore izan behar dute"¹. Pekingo Emakumeen Mundu Konferentzian (1995) sortu zen "ahalduntze" terminoa; emakumeek erabakiak hartzeko eta boterera iristeko prozesuetan parte hartzea adierazten du. Emakundek, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean, berdintasunerako baldintzatza hartzen du ahalduntzea, eta emakumeei pertsonalki zein maila kolektibo, sozial eta politikoko laguntzeko programak diseinatzen ditu. Emakumeek baliabideen (materialak eta sinbolikoak) kontrola eskuratzeko eta beren gaitasunak eta protagonismoa esparru guztietan indartzeko prozesua, horrela definitzen da ahalduntzea. Prozesu horretan, "emakume bakoitzak bere burua ahalmen du, gaitu eta baimendu egiten du". Gure sisteman esku hartzeko proposamenak ahalduntze-esparru horretan oinarritzen dira.

Indarkeriazko harreman batetik irteteko arazoari ezin zaio heldu prisma bakarretik; emakumeei eskainiko zaizkien zerbitzuetako asko elkarren osagarriak dira. Jarduteko sarean lan egin behar da, emakumeen segurtasun- eta konfiantza-giroa eskaintzeko.

Genero-indarkeriaren prebentzioak eskatzen du komunitatean kontzientzia sortzea eta osasunerako hezkuntza-jarduerak garatzea, komunitateen eta osasun-zerbitzuen (batez ere lehen mailako arreta) arteko loturak ezartzen dituen komunitate-eredu baten barruan.

2014. urteaz geroztik Emakunde NBErekin lankidetzan ari da indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arretan gutxieneko kalitate-estandarrik diseinatzeak.

¹ Touraine A. 2007



Testuinguru horretan, Euskadin gogoeta kolektiboko prozesu bat egiten ari dira indarkeria jasaten duten emakume eta neskatilentzako arreta-sistema hobetzeko. Arreta-sistemetatik emakume eta neskatila horientzako arreta hobetzea da asmoa: osasun-sistematik, zerbitzu judizialetatik eta polizia-zerbitzuetatik, gizarte-zerbitzuetatik eta abar. Osasunaren esparruan orain arte planteatu dena jasotzen du gida honek.

Emakumeenganako tratu txarrek ondorio juridikoak dituzte eta gida honetan aztertuko ditugun dilema etikoak planteatzen dituzte erabakiak hartzean.

Emakumeen osasunerako ekartzen dituzten ondorioez gain, biktima ikusezinak detektatu beharra dago, edozein adingaberentzat ondorio larriak baititu gisa horretako giroan garatzeak.

Emakumeen aurkako genero-indarkeria osasun publikoko arazoa da, heriotzak eta pairamena eragiten ditu eta.

Osasun-sistema funtsezkoa da genero-indarkerian prebenitzeko eta jarduteko, emakumeek zerbitzu horietara jotzen baitute zenbait osasun-arazo dela eta.

Gidaren lehen zatian argi eta garbi adierazten dira genero-indarkeriari buruzko kontzeptuak, erabilgarri dauden datu epidemiologikoak eta gai horretan hain beharrezkoak diren alderdi etikoak. Bigarren zatian emakumeek osasun-sistemara jotzen dutenean haiekin jarduteko prozesu osoa aztertzen da. Hasierako oinarrizko jarduna proposatzen du indarkeria jasaten duen emakumeren bat identifikatu edo susmatzen den edozein zerbitzutan, zerbitzu bakoitzaren berezko espezifikotasunak kontuan izanda. Testuinguru hauek jaso dira: lehen mailako arreta, etengabeko arretako gunea, ospitaleko larrialdiak, osasun mentala, ospitaleko kanpo-kontsulta eta ospitalizazioa. Kasua baieztatu ondoren, laguntzeko eta jarraitzeko jarduna egiten da, batez ere lehen mailako arretako eta osasun mentaleko testuinguruetan. Ondoren, genero-indarkeriarekin erlazionatutako egoeretan esku hartzeko jarraibideak eskaintzen dira: sexu-erasoen aurrean jarduteko prozesua; osasun-esparruan genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeen seme-alabekin jarduteko prozesua; erasotzaileekin jarduteko prozesua; arreta soziosanitarioaren koordinazioa. Beste atal adierazgarri bat testuinguruena da, hor xehetasun handiagoarekin garatzen baitira profesionalak genero-indarkeriako kasu batekin topo egiteko edo horren susmoa izateko aukera handienak dituzten osasun-esparru ohikoenetan esku hartzeko jarraibideak: ospitaleko larrialdietan; lehen mailako arretako kontsultategian edo etengabeko arretako gunean; ospitaleko kanpo-kontsultan edo ospitalizazioan; osasun mentaleko zerbitzuetan, nahasmendu mental larriaren kasuan. Gero genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeei arreta ematen dien osasuneko profesionala nola zaindu adierazten da, eta ondoren terminoen glosarioa eta maiz egiten diren galderak daude. Eta, azkenik, historia klinikoa erregistratzearekin erlazionatutako alderdi praktikoak, lesioen parteak, profesionalentzako galdera erraztaileak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumei eta hurrei arreta emateko baliabide erabilgarriak lantzen dituzten eranskinak daude.



2. kapitulua

ALDERDI KONTZEPTUALAK

2. ALDERDI KONTZEPTUALAK

Indarkeria jasaten duten emakumeek era askotako sintoma ez-espezifikoeekin jotzen dute osasun-zerbitzuetara. Profesionalek horietarako tratamendu sintomatikoa ematen diete, kasu gehienetan genero-indarkeriako egoeraren bat izan daitekeela susmatu gabe.

Genero-indarkeria diagnostiko diferentzialean sartzea osasunaren ikusmolde biopsikosozialaren eta osasun-arretako genero-ikuspegiaren eskutik doa. Horrek emakume horien medikalizazioa eragiten duten joera profesionalak saihesten ditu, zenbaitetan osasuneko langileak omisiozko indarkeria egitera iristen baitira. Osasun-sisteman medikalizatzeko joerak depresio- edo antsietate-diagnostikoak eta tratamendu farmakologikoak sortzen ditu, egoeraren azken kausa haren bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan daitekeela ikertu gabe.

1. ZER ULERTZEN DUGUN GENERO INDARKERIATZAT

Ez dago emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa izendatzeko definizio garbi eta ahobatezkorik. Nazio Batuen Erakundearen definizioa da onarpen zabalena duena: "emakume izatea oinarri duen edozein indarkeria, edo emakumeei kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragin diezaiekeena. Horren barruan hartzen dira aipatutako ekintza horien mehatxuak, derrigortzea edo arbitrarioki askatasuna kentzea, publikoan zein pribatuan gertatuta ere"; eta kausak estrukturalak direla aitortzen du².

Espainiako Estatuan, 1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, gizonak emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen ondorioz erabiltzen duten indarkeria aipatzen du "horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan"³. Genero-indarkeria kontu pribatua ez dela aitortzen bada ere, neurriak afektibitate-harremana dagoenean edo izan denean besterik ez dira aplikatzekoak. Geroztik, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 8/2015 Lege Organikoak Genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoan egiten dituen erreformek aldatu egiten dute adingabeen izaera. Izan ere, zeharkako biktima izateari uzten diote eta genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzen dira gaur egun.

² NBE (1993).

³ 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

Berriki, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak (2018), 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, egiten duen definizioarekin bat, eta emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenari (Istanbuleko Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11koa) jarraikiz, emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen du generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun-gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

Gida honetan, bikote-harreman heterosexualetan gizonarengandik emakumearengana eta haien seme-alabengana egiten den indarkerian jartzen da jarduteko fokua, Estatuko indarreko legerian ezarritakoari jarraikiz. Gainera, jarduteko ildo irekiagoa planteatzen du, emakumeek emakume izate hutsarengatik jasaten dituzten indarkeriak osasun-sistematik goiz detektatzea eta horien aurka laster esku hartzea bermatzeko, "gaixotasunaren jatorria (desparekotasuna) trata dezan, eta ez ezinbestean gehien ikaritzen gaituen sintoma (indarkeria)"⁴. Genero-indarkeriaren motarik ohikoena indarkeria psikologikoa, fisikoa eta sexuala dira (glosarioan definituak).

1.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN SAILKAPENA

Kategorizatorik ohikoena emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak⁵ ezarritakoa da:

- Indarkeria psikologikoa.
- Indarkeria fisikoa.
- Sexu-indarkeria, bortxaketa barne.
- Jazarpena.
- Ezkontza behartuak.
- Emakumeen genitalen mutilazioak.
- Abortu eta antzutze behartua.
- Laguntza edo konplizitatea eta saiakuntza.

Literatura gehiena bat dator baieztatzen duenean indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala direla emakumeen aurkako indarkeriak hartzen dituen molde nagusiak. Dena den, ez da ahaztu behar emakumearen aurkako beste

⁴ Gómez Fernández I., 2017.

⁵ Istanbuleko Hitzarmena, 2014.



indarkeria-molde batzuk ere badaudela, hala nola indarkeria estrukturala, indarkeria politiko-instituzionala, indarkeria espirituala, ziberindarkeria edo gorroto-indarkeria.

Osasunaren Mundu Erakundeak egiten duen analisiaren arabera, bizizikloan gertatzeko probabilitatearekin erlazionatzea da emakumeen aurkako indarkeria-moldeak bereizteko beste modu bat (1. taula).

1. taula. Genero-indarkeria bizitzan zehar

BIZITZAREN FASEA	INDARKERIA MOTA
Jaio aurrekoa	<ul style="list-style-type: none"> - Abortu selektiboa sexuaren arabera. - Amari haurdunaldian emandako tratu txarrek fetuarentzat dituzten ondorioak.
Hautzaro goiztiarra	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen infantizidioa. - Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa.
Hautzaroa	<ul style="list-style-type: none"> - Intzestua. - Nesken ezkontza. - Emakumeen genitalen mutilazioa. - Haur-pornografia. - Haur-prostituzioa. - Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa.
Nerabezaroa eta helduaroa	<ul style="list-style-type: none"> - Aniztasun funtzionala duten emakumeez abusatzea (fisikoki zein psikologikoki). - Ezkonsariarekin erlazionatutako abusuak eta giza hilketak. - Sexu-jazarpena. - Haurdunaldi behartua. - Intzestua. - Pornografia behartua. - Prostituzio behartua. - Sexu-harreman inposatuak. - Emakumeen salerosketa. - Indarkeria gorteatzean eta ezkongaietan (azidoz erasotzea, bortxaketak...). - Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa bikotean. - Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa bikoteaz kanpo.
Zahartzaroa	<ul style="list-style-type: none"> - Alarguntsen hilketa. - Alarguntsen suizidio behartua. - Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa.

Iturria: Osasunaren Mundu Erakunde (1998a, 1998b).

Ez dago tratu txar mota bakar bat, ezta horien testuinguru bakar bat ere, horietako asko baizik. Horien artean, gainera, emakumeen aurkako indarkeria-molde disimulatuak daude, eta espazio publiko zein pribatuetan betikotzen jarraitzen dira. Gizartean indarkeria sortzen duten beste portaera batzuk ere badaude, errepikakor bihurtu eta portaera sozial onartuak izatera iritsi direnak. Horrez gain, bikote-harreman berean zenbait indarkeria mota izan ohi dira aldi berean, eta, hortaz, ezin da ezarri bikotean indarkeria agertzeko patroia edo eredurik.

1.2. GENERO INDARKERIARI BURUZKO KONSTRUKTU TEORIKOAK

1.2.1. Sexu-genero harremanen eraikuntza genero-indarkeria bikotekidearen / bikotekide ohiaren esparruan ulertzeko


Kultura patriarkalak boterean, nagusitasunean eta kontrolean oinarritutako harremanak ezartzen ditu gizon-emakumeen artean. Emakumeentzat oso zaila da harreman horiek haustea, seme-alabak, familia, komunitatea eta gizartea oro har inplikaturik baitaude. Ildo horretan, gida honek ez du aztertzen LGTBI ikuspegia.

Esparru ekologiko integratuaren⁶ arabera, pertsona bakoitza harreman-maila ugarietan murgilduta dago —banakakoa, familiarena, komunitatearena eta soziala—, eta hor indarkeriaren zenbait adierazpen eta dinamika sor daitezke. Faktore pertsonalak, egoerari dagozkionak eta soziokulturalak erabakigarriak dira indarkeria-egoeran. Faktore horiek proposatutako lau mailetan eragiten dute (1. maila: historia pertsonala; 2. maila: mikrosistema; 3. maila: exosistema edo mesosistema; 4. maila: makrosistema), eta indarkeriaren aurkako babesa izan daitezke edo hura agertzeari bidea eman diezaiokete. Ereduak proposatzen du arrisku-faktoreak lau mailetatik abiatuta analizatzea, jakinik genero-indarkeria lau maila horietako edozeinetan eman daitekeela. Hori dela eta, begirada faktore kulturalen, sozialen eta psikologikoen arteko interakzioan jartzea da ereduaren asmoa (1. irudia).

⁶ Heise L.L. 1998.



1. irudia. Genero-indarkerian inplikaturako sistemen interrelazioa eredu ekologikotik azaltzea.




Iturria: Heise. L 1998.

“Boterearen eta kontrolaren gurpilak”⁷ esparru ekologikoa osatzen du, emakumearenganako indarkeria-harremanak ezartzeko gizonen arrazoiak arakatu-ta. Tratu txarren harremanetan boterearen dinamika eta kontrola zer-nolakoa den bistaratzea ahalbidetzen du. Harremanean boterea eta kontrola lortzeko beren bikotekideen aurka indarkeria erabiltzen duten gizonen sinesmenak eta jokabideak analizatzen dira, eta arau eta balio soziokulturalekin erlazionatutako gizonaren sinesmenak arakutzen dira (2. irudia).

⁷ Fleck-Henderson. 2004.

2. irudia. Boterearen eta kontrolaren gurpila



Iturria: Fleck-Henderson et al. 2004.

1.2.2. Generoan oinarritutako botere-eredua

Ekitaterik ezaren teorian oinarri hartuta, adierazten du generoan oinarritutako hierarkiak emakumeen eta gizonen betebeharrak asimetrikoak sorrarazten duela gizarte orok behar dituen jarduerak egitean (adingabeak eta gaixoak zaintzea, etxeko lana eta abar).

Emakumeen eta gizonen arteko botere-desparekotasunak lau oinarri hartzen ditu sostengu: baliabideen banaketa, betebeharrak sozialak, ideologia eta indarra. Indarkeriak berak ez ezik indarkeria erabiltzeko mehatxuak ere sortzen du ondorio hori.

Eredu horren pean lau oinarriek harreman dinamikoak mantentzen dute elkarrekin; beraz, botere-desparekotasuna gutxitzeko ahaleginak arrakasta izan dezaten, lau oinarrietan eragin behar da aldaketa. Eredu horretatik egiaztatzen da emakumeek beren bikotekide eta senitartekoei loturik dituzten betebeharrak (osasun-zainketak, etxeko lanak eta abar) azaltzen dutela emakumeen gutxiagotasuna eta beren bikotekideen boterearekiko harremana.



1.3. GENERO INDARKERIA BETIKOTZEN DUTEN MITOAK, ESTEREOTIPOAK ETA SINESMENAK

Mitoak honela defini ditzakegu: sinesmen estereotipikoak, eskuarki okerrekoak, baina pertsona gehienek egiazkoak balira bezala onartzen dituztenak. Bikotekidearen aurkako erasoa minimizatzeko, ukatzeko eta justifikatzeko balio dute, baita benetako arazoa ikusezin bihurtzeko ere.

Mito horien azpian dagoen izendatzaile komuna arazoa urrun kokatzea da, talde edo kolektibo espezifikoekin (immigranteak, langabeak eta abar) edo inguruabar biografiko edo pertsonalekin (familia desegituratuak, indarkeriazkoak eta abar) erlazionatuta, edo, bestela, indarkeria horren erantzukizuna berriz kokatu eta egile diren gizona gizonzkoengandik urruntzea.

Klasikotzat jotzen diren mitoak⁸:

- **Marjinaltasunari buruzko mitoak:** genero-indarkeria salbuespenaren alorrean kokatzen dute, taldetik beretik urrun dagoen eta salbuespenezko inguruabarren emaitza den zerbait balitz bezala mantenduta.
- **Tratu txarren emaleei buruzko mitoak:** indarkeriaraino eraman duten eta modu gutxi-asko esplizituan errutik libratzen duten erasotzailearen faktore pertsonalak nabarmentzen dituzte.
- **Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei buruzko mitoak:** erruaren zama haiengana eramaten dute eta gertatzen zaienaren erantzule egiten dituzte, bai haien ezaugarriren batek (nortasuna, estatusa, emozioak...) indarkeria erraztuko lukeelako, bai indarkeria onartuko luketelako edo haren eraginpean mantenduko liratekeelako.
- **Genero-indarkeriaren garrantzia minimizatzen duten mitoak** oso lokalizatuta dagoen unean uneko fenomenotzat hartzen dute; indarkeria psikologikoa ez da indarkeria fisikoa bezain larria; gizonak eta emakumeak berdin erabiltzen dute indarkeria bikotean.

Horiei mito berriak gehituko litzaizkieke, hots, neomitoak⁹:

- Guraso-alienazioaren sindromea (GAS), emakumeak manipulatzaileak direlako ideia indartzen duena, neska-mutilengan eragina izango bailukete aita ikusi nahi ez dezaten.
- Legeek "harreman normalak" direnak kriminalizatzen dituztela uste izatea.

⁸ Bosch, E. y Ferrer, V. A. 2012.

⁹ Lorente, M. 2009.

- Emakumeen sinesgarritasuna zapuztu nahi duen salaketa faltsuen ustezko ugaritzea.
- Gizonak sistemaren “benetako biktimak” direla uste izatea.

Mito negazionistek arazoaren garrantzia minimizatzea hartzen dute ardatz. Zalantzan jartzen dute indarkeria horri larria denik eta gertatzen denik ere. Emakume jakin batzuek sortu eta erabiltzen duten gehiegikeria dela uste dute, onurak lortzeko eta/edo gizonari kalte egiteko pentsatua, batez ere banantzeko edo dibortziazteko auzietan eta seme-alaben zaintza erabakitzekoetan.

1.4. INDARKERIAREN PROZESUA

Zergatik aguantatzen dute hainbeste emakumeek indarkeria eta tratu txarren egoeretan? Denbora luzean uste izan da emakume batzuek horrelako harremanetan irauten dutela osagai masokista sendoak eta mendekotasun emozionalari lotutakoak dituztelako. Errealitatea oso bestelakoa eta konplexua da. Batzuk bakarrik eta desesperatuta sentitzen dira, beldurra eta babesgabetasuna sumatzen dute eta kasu askotan, oraindik ere, merezi dutela uste dute.

Tratu txarren harremanak uzteko edo ez uzteko erabakiarekin erlazionatutako faktoreak hauek dira:

- Abusuaren ezaugarriak.
- Erabilgarri dauden baliabide materialak eta sozialak.
- Emakumearen tratu txarren aurrekariak.
- Emakumearen jarrerak.
- Harremanaren amaiera bere gain hartzeko gaitasuna.
- Beldurra.


1.4.1. Indarkeriaren zikloa

Leonore Walker-ek ikertu zuen tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak zergatik ezin diren irten egoera horretatik, eta “babesgabetasunaren eredu” edo “etsipen ikasiarena” erabili zuen horretarako. Eredu horren arabera, gertakari kontrolaezinen mende dagoen emakume batek — indarkeria-ekintzen mende kasu honetan— erreakzionatzeko edo ihes egiteko erantzuna blokeatuta geratzen den egoera psikologikoa sortuko du; emakumeak uko egiten dio aldaketak egiten saiatzeari, ikaratuta bizitzen ikasten du eta harremanaren egoeran aldaketak egitea ezinezkoa dela uste du. Tratu txarrak fase hauei jarraituz garatzen dira: a/ tentsioa metatzea; b/ indarkeria piztea/lehertzea edo fase akutua; c/ damua, lasaitasuna, adiskidetzea edo “eztei-bidaia”.



Tentsioa metatzeko fasean, hainbat gertakarik etsaitasuna areagotzen dute bikotean, emakumeak ulertzeko moduko arrazoirik izan gabe; denboraren poderioz gero eta sarriagoak dira indarkeriazko gertakari fisiko eta psikikoak. Indarkeria pizten/lehertzen denean, indarkeria fisikoa abian jartzen da, zenbaitetan abusu psikologiko eta sexualarekin batera. Damu-fasean gizonak barkamena eskatzen du, emakumearenganako jokabide maitekorra erakusten du eta berriz gertatuko ez dela hitz ematen dio (3. irudia).

3. irudia. Indarkeriaren zikloa




1.4.2. Indarkeriaren goraldia

Pixkanakako eta goranzko prozesu honetan, etapa bakoitzeko erasoen intentsitateak eta maiztasunak gora egiten du denbora igaro ahala. Erasotzaileak zaintzeko eta babesteko jarreraren itxura eta adierazpidea ematen dien abusu psikologikoko jokabideekin hasten da. Antzematen zailak dira, maitasun-itxura baitute, baina murriztu egiten dute emakumeak bere buruan duen konfiantza eta segurtasuna eta erreakzio-ahalmena. Egia esan, jokabide murriztaileak eta kontrolatzaileak dira, emakumearen autonomia apurka-apurka ahultzen dutenak, emakumea mendeko egoeran eta bakartuta uzten duten aldi berean.

Horien adibide dira, besteak beste, jelskortasuna, zaintza, arroparen, adiskideen edo jardueren gaineko zentsura, ordutegiak eta etxetik kanporako irteerak kontrolatzea. Tratu txar fisikoen bezpera izaten diren jokabide horiek emakumeek normalean ez dituzte erasokortzat hartzen, bikotekidearen izaeraren adierazpentzat edo gizonezkoen ezaugarri nagusitzat (rol menderatzailea eta babeslea aldi berean) baizik. Normalak balira bezala barneratu dira, familian, eskolan edo kalean sozializatzeko prozesuen bitartez. Horregatik ez zaie behar besteko garrantzia ematen eta tazituki onartzen dira, eta horrek guztiak babesgabetasun ikasia eta kalteberatasuna sortzen du emakumeengan.

Indarkeriaren pixkanakako igoera, eraso fisikoetara eta are heriotzara iritsi arte, denbora luzean eman daiteke. Prozesu horretan areagotu egiten da erreferentzien, autoestimua eta segurtasun pertsonalaren galera. Hori dela eta, emakume biktimarentzat zaila da bera barnean hartu duen prozesu horren esanahia eta garrantzia antzematea eta ulertzea eta, gainera, ez da ohartzen zer-nolako arriskuan dagoen (4. irudia).

4. irudia. Indarkeriaren goraldia



Iturria: Larouche G. 1987.

1.4.3. Emakumeen ibilbide kritikoa: indarkeriaren zirkulutik irteteko zailtasunak

Herentzia sozialak eta patrio kulturek zati batean argitzen dute emakumeei tratu txarrak ematen dizkien gizonarekin bikote-lotura hausteko zailtasuna. Familia-unitatearen mesedetan, beren ongizate pertsonalari eta beren beharrei uko egiteko eskatzen zaie emakumeei. Emakumeak lotura-ardatz eta afektibitate-sostengutzat hartzen dira. Faktore ekonomikoak ere deskribatzen dira, hala nola baliabide ekonomikorik ez izatea edo familian seme-alaba txikiak edo mendetasuna duten beste pertsona batzuk izatea. Elkarrekin adostutako dibortzioa ukatzea edo migrazio-egoera irregularrean egotea izan daitezke emakumeek egoera horretan irauteari bidea eman diezaioketen beste faktore batzuk.

Osasunaren Erakunde Panamerikarrak honela definitzen du ibilbide kritikoa: emakumeek isilaldia eteteko erabakia hartzen dutenean exekututzen dituzten erabaki eta ekintzetatik eta, orobat, soluzio bila dabiltzanean aurkitzen dituzten erantzunetatik abiatuta eraikitzen den prozesua. Faktore bultzatzaileak eta inhibitzaileak dira, barnekoak (pertsonalak) eta kanpokoak (testuingurua), elkarrekin erlazionatu eta emakumeen subjektibotasunaren



gainean jarduten dutenak, laguntza eta soluzioak bilatzeko ibilbideari ekin eta jarraitzeko erabakian indartu edo ahultzen dituztenak.

Genero-indarkeriari ematen zaizkion erantzun sozialak hainbat kategoriatan sailka daitezke: osasuneko arreta-zerbitzuak; biktimentzako laguntza; erasotzaileekin esku hartzeko programak; komunikabideetako informazio-kanpainak; hezkuntza; lege-erantzunak... Indarkeria-egoeratik irteteko erraztasun edo zailtasun handiagoa edo txikiagoa faktoreen baturaren edo metaketaren arabera izango da. Emakume baten kasuan zenbat eta faktore negatibo gehiago bildu, hainbat eta txikiagoa izango da emakume horrek harremana uzteko probabilitatea. Baliabide asko dituen emakume batek ere zailtasunak izan ditzake egoeratik irteteko. Behar-beharrezkoa da ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta politikoa. Ahalduntze-eskolak eta beste emakume batzuen sostengua garrantzizkoak izan daitezke indarkeria-egoeratik irteten laguntzeko. Faktore batzuek emakumeek laguntza eskatzea errazten dute eta beste batzuek, ordea, inhibititu egiten dute (2. taula).

2. taula: Faktore erraztaileak/inhibitzaileak

<p>EMAKUMEEK LAGUNTZA ESKATZEA ERRAZTEN DUTEN FAKTOREAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumearenganako edo seme-alabenganako tratu txarren gogortasuna arian-arian handitzea. - Seme-alaben babesa. - Seme-alabak handitzean erasotzaileari aurre egitea. - Independentzia ekonomikoa. - Familiaren edo gizartearen laguntzako sareak izatea.
<p>EMAKUMEEK LAGUNTZA ESKATZEA INHIBITZEN DUTEN FAKTOREAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun ekonomikoa. - Eginbeharraren aginduak. - Obedientzia. - Lotsa. - Errua. - Beldurra. - Muga materialak. - Familiaren eta gizartearen presioak.

Iturria: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko makroinkestak. 2015. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta berdintasuneko Ministerioa.

2. ARAZOAREN HANDITASUNA

2.1. EPIDEMIOLOGIA

Emakumeei heriotza goiztiarrak zein sufrimendua eta gaixotasuna eragiten dizkien osasun publikoko arazo garrantzitsua da genero-indarkeria. Epidemia da OMEren hitzetan. Horrexegatik da hain garrantzitsua osasuneko langileek detekzio goiztiarrean, identifikazioan eta laguntzan betetzen duten eginkizuna

Osasun publikoko arazoa da banakako kasuen agregazioagatik ez ezik, emakumeen osasun-egoeran eragina duten determinatzaileak emakumeei eraso egiten dien egitura batek kutsatzen dituelako ere (lan-munduko baldintzatzaileak, botere-harremanak, egitura soziofamiliarra eta laguntza klinikoa).

OMEren arabera, indarkeria fisikoa edo sexuala mundu osoko emakumeen herenak baino gehiago eraginpean hartzen dituen arazoa da. Emakume guztien % 35ek, gutxi gorabehera, indarkeria-ekintzak bizi izango dituzte bikotean zein bikotetik at bizitzaren uneren batean. Bikote-indarkeria da emakumeen aurkako indarkeria motarik ohikoena, mundu osoko emakumeen % 30 eraginpean hartzen ditu eta. "Aurkikuntza horiek mezu ahaltzua bidaltzen dute: emakumeen aurkako indarkeria proportzio epidemikoak dituen munduko osasun-arazoa da"¹⁰.

Giza Eskubideen Europako Agentziak zenbatesten duenez, emakumeen % 33k indarkeria fisikoa eta/edo sexuala jasan dute 15 urtetatik, eta emakumeen % 43k indarkeria psikologikoren bat jasan dute beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik (feminizidioa sartu gabe). Emakume eta nesken osasun fisiko eta mentalaren gaineko eragina oso zabala izan daiteke: hezur hautsiak, haurdunaldiei lotutako konplikazioak, arazo mentalak, funtzionamendu sozialaren narriadura...

Neskak bereziki kalteberak dira sexu-indarkeriaren aurrean. Haurtzaroko sexu-abusuen prebalentzia % 18 da nesken kasuan eta % 8 mutilen kasuan. Emakumezko nerabeek probabilitate handiagoa dute, halaber, bikote-indarkeria jasateko; ezagunek edo ezezagunek bortxatzeko; ezkontza goiztiarra edo behartua jasateko; sexu-esplotaziorako eta haurren lanerako salerosketaren biktima izateko; eta genitalen mutilazioa edo ebaketa pairatzeko.

Genero-indarkeria jasaten duten emakume asko amak dira eta, horrenbestez, oso handia da indarkeria horrek eraginpean hartzen dituen neska-mutilen kopurua. Zenbatespenen arabera, Espainian 800.000 adingabe inguru indarkeria mota hori gertatzen den etxeetan bizi dira. Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioaren 2015. urteko genero-indarkeriari buruzko makroinkestak adierazten duenez, seme-alaben % 63,6k beren amek jasandako indarkeria-egoeretakoren bat ikusi edo entzun zuten.

¹⁰ OPS/OMS. Chan, M. 2014.



Genero-indarkeriaren benetakopre balentzian neurtzealannekeza etakorapilatsua da. Poliziaren, emakume-zentroen eta beste erakunde formal batzuen bitartez erabilgarri dauden estatistikek maiz gutxiesten dituzte indarkeriaren mailak, kasu gutxi jakinarazten dira eta. Bikotean genero-indarkeria kontu pribatua dela uste izateak eta emakumeek indarkeria hori “zerbait normala” dela pentsatzeak zaildu egiten du gaur egun dauden kasuak benetan neurtzea eta betikotu egiten du arazoaren dimentsio erreala ikusezintasuna.


2.2. GENERO INDARKERIAREN ONDORIOAK

Askotan indarkeria fisikoa agerikoena eta kalte gutxien eragiten duena dela pentsatzen bada ere, zeinu fisikoak denborarekin kendu eta oinazeak arindu egiten baitira, gogoan izan behar da indarkeria psikologikoak etengabeko beldur-sentsazioa ekartzen duela, beti mugan sentitzea, garrasiak, umiliazioa eta iseka saihesteko aukerarik gabe, eta beti etortzen dela indarkeriarekin batera, emakumeak eta haien mendekoak babesgabetasun-egoeran utzita.

2.2.1. Emakumeen beren gaineko ondorioak

Alor honetan egin diren ikerketek egiaztatzen dutenez, tratu txarrak jasan dituzten edo jasaten dituzten emakumeen osasunak narriadura-patroia erakusten du indarkeriarik gabe bizi izan diren emakumeen aldean. Ikerketa gehienek indarkeriaren ondorio fisikoak eta psikikoak bereizten dituzte. Azken horiek garrantzi handikoak dira sortzen dituzten ondorioengatik: trauma osteko estresaren nahasmendua (TOEN) eta depresioa, autoestimua lesioa, substantzien abusua eta ludopatiak, eta suizidioa (5. irudia).

5. irudia. Bikotekidearen aurkako indarkeriaren bideak eta osasunaren gaineko ondorioak



Iturria: Osasunaren Mundu Erakundea, 2013.

2.2.2. Seme-alabak. Haurren gaineko ondorioak

Emakumeen aurkako indarkeria neska-mutilen aurkako indarkeriarekin batera etorri ohi da. Horrela, portaera suntsizaitleen eta jarrera negatiboen zikloa betikotu egiten da indarkeria-giroan murgilduta hazten den haurraren. Hala, amak tratu txarrak jasaten dituen familia batean bizitzeak esan nahi du haurrak desparekotasuneko eta botere-abusuko patroia batean oinarritutako zapalkuntza- eta kontrol-egoeren eraginpean daudela.

Neska-mutilak genero-indarkeriaren eraginpean egoteak areagotu egiten ditu garapen fisikoan, emozionalean, kognitiboan eta sozialean epe labur eta luzean arazoak izateko arriskuak. Indarkeria hori ikusteak bizitza osorako ondorio larriak izan ditzake haurraren ongizatean, garapen pertsonalean eta interakzio sozialetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparogeoaren larritasuna balioesteko BALORA tresnak "Bikote barruko edo bizikidetzaren unitateko kideen arteko indarkeriazko egoerekiko esposizioa" tipologia jasotzen du tratu txar psikikoen kategoriaren barruan.

Pariseko Haurtzaroren Nazioarteko Zentroaren¹¹ postulatuari jarraikiz, etxean adingabeei ematen zaizkien tratu txartzat hartzen dira "neska edo mutilari bere eskubide eta askatasunak kentzen dizkieten eta haien ongizatean eta garapen integralean ondorio negatiboak dituzten ekintzak, adingabeari sufrimendu bizia eragiten diotenak, zeinaren ondorio negatiboak areagotu egiten baitira egoera kronifikatu ahala". Haurren tratu txar motak:

- Tratu txar fisikoa.
- Tratu txar psikologikoa edo emozionala.
- Zabarkeria.
- Sexu-abusua.

UNICEFek zehazten duenez, zuzeneko indarkeria ez ezik, familia-indarkeriak neska-mutilen gainean dituen zeharkako ondorioak ere tratu txartzat hartu behar dira. Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak sortzen dituen ondorioak zenbait aldagairen mende daude:

- Indarkeriarekin erlazionatutakoak: tipologia, intentsitatea, kronikotasuna.
- Haurraren ezaugarriak: adina, zein garapen-etapatan gertatzen den, kalteberatasuna, eragin-maila.
- Haurrak biktimarekin eta erasotzailearekin duen harremana.
- Familian egoera larriagotu dezaketen beste faktore estresagarri batzuk izatea: prekaritate ekonomikoa, toxikoen kontsumoa, marjinaltasuna...
- Amaren figurak, familia-inguruneak eta sare sozialak haurrari ematen dioten babesa.

¹¹ Centre International de L'enfance. 1980.



Aita tratu txarren emaileek adingabeen gainean erabiltzen duten indarkeriaren ondorioak larriak dira, baina ikusezin bihurtuta egon dira ikerketetan zein estatistiketan. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak ez ditu neska-mutilak esplizituki aitortu zuzeneko biktimatzat 2015. urtera arte, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 8/2015 Lege Organikoa eman arte.

Legeak aintzat hartzen duenez, epaileak genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuari eten ahal izango dio guraso-ahalaren, zaintza eta jagoletzaren, harreraren, tutoretzaren, kuradoretzaren edo egitezko zaintzaren egikaritzea, edo agindu ahal izango du genero-indarkeriagatik erruztatutako pertsonari bisita-, egonaldi-, harreman- edo komunikazio-araubidea etetea, haren menpe dauden adingabeei dagokienez.

2.3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KOSTU SOZIALAK

Emakumearen aurkako indarkeriaren kostu sozialak eta ekonomikoak ikaragarriak dira eta gizarte osoan dute eragina. Emakumeak bakartuta eta lanerako ezgaituta egotera irits daitezke, soldata gal dezakete, eguneroko jardueretan parte hartzeari utz diezaioke eta beren burua eta beren seme-alabak zaintzeko indarrak gal ditzakete.

EIGE erakundeak (European Institute for Gender Equality) 2014. urtean egin zuen azterketak egindako zenbatespenen arabera —azterketak Erresuma Batua hartu zuen ardatz eta emaitzak Europako gainerako herrialdeetara estrapolatu ziren—, Espainian emakumeen aurkako bikote-indarkeriaren kostua 10.125 milioi eurokoa izango litzateke eta genero-indarkeriaren kostua 20.954 milioi eurokoa.

Genero-indarkeriaren kostuen analisisiei buruzko azterketa gutxi dago. Andaluziako Emakumearen Institutuaren zenbatespenen arabera (2004. urtea), indarkeriak 2.356,8 milioi euroko urteko kostua du Andaluziako gizartearentzat. Zifra horrek zuzeneko kostuak (biktimek erabilitako baliabideak, espezifikokoak edo ez) zein zeharkako kostu batzuk (indarkeria mota horren ondorioz galdutako ondasun eta zerbitzuen balioa, biktimaren eta gizarte osoaren ongizate-galera) jasotzen ditu. Reina Sofia Zentroak 2006. urtean Valentziako Erkidegoan egin zuen azterketak kalkulatu du urteko guztizko kostuak 23 milioi eurokoak direla.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez da eskala handiko azterketa espezifikorik egin emakumeen aurkako indarkeriaren kostu sozialen inguruan. 2013. urtean osasun-sisteman erabilitako baliabideen berrikusketa egin zen, zehazki, erabilitako kontsultei eta gastu farmazeutikoari buruzkoa, indarkeria-erregistroa zuten eta erregistrorik ez zuten emakumeak konparatuta. Emaitzek erakutsi zuten osasun-gastua nabarmenki handiagoa zela (% 16 eta % 49 artean) genero-indarkeriaren kode-erregistroa zuten emakumeen artean gainerako emakumeen artean baino (3. taula).

3. taula. Lehen mailako arretako erregistroaren arabera indarkeria jasan duten emakumeen eta indarkeriarik gabeko emakumeen arteko baliabide-erabileraren eta kostuen konparazioa

	INDARKERIARIK EZ	INDARKERIA	ARRAZOIA	Konfiantza-tartea: % 95	
				TXIKIAGOA	HANDIAGOA
GUZTIZKO KOSTUA	1241,53	1681,91	1,35	1,16	1,54
FARMAZIA KOSTUA	192,35	229,30	1,19	0,97	1,42
KONTSULTAK	7,13	10,89	1,53	1,44	1,62
EHP	1,15	1,58	1,38	1,28	1,47
OSPITALERATZEAK	0,08	0,13	1,58	1,19	1,97
LARRIALDIAK	0,35	0,98	2,81	2,57	3,05
FARMAKO KOPURUA	3,26	4,53	1,39	1,30	1,48

* Erregresio linealeko ereduarekin zenbatetsitako balioak, adinaren, kupoaren eta ADG kodeen arabera doituak. Iturria: Maite Paino, Eduardo Millan. 2013. "Las mujeres con diagnósticos de violencia de género, una visión desde Osakidetza".

3. OSASUNEN PROFESIONALEN ESKU HARTZEAREN ALDERDI ETIKOAK.

3.1. PRINTZPIOAK ETA BALIO ETIKOAK

Premiazko etxeko arretako taldeek, larrialdietako zerbitzuek eta ospitalizazioko profesionalek kontu izan behar dute alta-txostena egitean, genero-indarkeriaren inguruan bertan jasotako informazioa baloratuta eta kontuan izanik emakumearen segurtasuna dela ziurtatu beharreko lehentasuna. Informazioa historia klinikoan jaso bada edo lesioen parte bat egin bada, horrek jadanik ziurtatu egin ahal izango du laguntzaren jarraitutasuna, eta alta-txostenean bildutako datuak agian ez dira gertatuko hain garrantzitsuak.




3. TESTUINGURUA

OSPITALEKO LARRIALDIETARAKO HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA

Osasuneko pertsonalak Genero Indarkeriako egoera bat hautematen badu Ospitaleko Larrialdietan, eskema orokorrean dagokion **HASIERAKO OINARRIZKO JARDUN**erako adierazitako jarraibideak beteko ditu.

Larrialdietako zerbitzuan, garrantzitsua da arreta-prozesu osoan intimitatea, konfidentzialtasuna eta segurtasuna betiere ziurtatzea. Emakumeari harrera egitean, honako hau kontuan hartuko dugu:

- Genero-indarkeriaren biktima diren pazienteak modu goiztiarrean identifikatzea, ahal bada triajetik abiatuta.
- Pazientea bakarrik joango balitz, saiatu beharko da Larrialdietako Zerbitzuetako egonaldian beti lagunduta egon dadin osasuneko pertsonalaz (emakumea bada, hobe).
- Larrialdietako Zerbitzuen barruan (box-ak, ibiltzeko eremua) eman behar da arreta, lehen adierazitako premisak (intimitatea, konfidentzialtasuna eta segurtasuna) bermatuta eta itxarongela saihestuta.
- Genero-indarkeriako kasu bat identifikatzen den une berean, segurtasun-pertsonalari ohartaraziko zaio, laguntzaileen bisitak kontrolatzeko eta, tratu txarren emailearen presentziagatik, arrisku-egoerak saihesteko.



Hasierako oinarrizko esku-hartzean, kapitulu orokorrean ezarritako irizpide bereberei jarraituko diegu, larrialdietako laguntza-testuinguruaren berezitasunak kontuan izanda.

- Emakumeari **ENTZUTEA**.
- Profesionalaren **HARRERA ETA ENPATIA**.
- **ARRISKUAK BALORATZEA**. Larrialdietako lehen balorazioa emakumearen lesioetan edo bere osasunerako arriskueta oinarrituko da. Hala, diagnostiko eta tratamendu egokia emango zaizkio eta dituen lesio eta sintomekin lotutako arreta emango zaio.

Egoera psikologikoari arreta emateko, era berean, balorazio bat egingo da, guardiako psikiatriaren aldetik premia arreta behar ote den aztertzeko.

Emakumearen egoera sozialak eskatzen badu (erasotzailearekiko harremanagatik, segurtasunik ezagatik, isolamenduagatik, seme-alaben presentziagatik, etab.), gizarte-zerbitzuen premiazko jarduna eskatuko da (ikus 4. eranskina) eta/edo poliziari hots egingo zaio.

- **JARRAITUTASUNA ETA DERIBAZIOA.** Larrialdietako zerbitzutik ziurtatu egingo da, beti, laguntzaren jarraitutasuna. Hala, emakumearen erreferentziazko Lehen Mailako Arretako pertsonari haren berri emango zaio. Komunikabidea ezarri ahal izango da zaintzen jarraitutasunaren bidez edo lehen osasun-mailarekin hartu beharreko hitzordu ez-presentzialaren bidez. Profesional horiek arduratuko dira ondorengo jardun-plan bat erraztuko duen Laguntza Geroratuaren Jardunaz. Erabilgarria izan daiteke laguntzari buruzko informazioa ematea: emakumearentzat interesgarriak izan daitezkeen telefonoak, web-orriak edo baliabideak (ikus 4. eranskina). Era berean, bidezkotzat jotzen diren kasuetan, Larrialdietako Zerbitzuek emakumeari aukera eskainiko diote Zerbitzu Soziosanitarioen aldetik jarraipen bat izateko.
- **ERREGISTROA.** Gure jardunak osorik erregistratuta geratu behar du. Izan ere, emakumearen historia klinikoa funtsezko tresna da laguntzari jarraitutasuna emateko eta emakumeari berari edo instantzia judizialei informazioa ekartzeko. Egindako jarduera guztiak erregistratuko dira, eta emakumeak dituen lesioak bilduko dituen bidezko txosten egingo da. Dagokion kodifikazioa ezarriko da GNK10 gaixotasunen nazioarteko kodearen bidez (ikus 1. eranskina), edo "genero indarkeria" laukia markatuta. Beti baloratu behar dugu alta-txostena entregatzeak berekin arriskurik ekar dezakeen emakumearentzat, eta baloratu behar da txostena familiakoei edo harekin daudenei ematea, beharrezkoa balitz.
- **JAKINARAZPEN JUDIZIALA.** Laguntzaren ardura duen profesionalak lesioen parteko eredia beteko du, emakumeari horren berri emango dio eta kopia bat epaitegira bidaliko du. Emakumeak uko egiten badio epaitegira parte igortzeari, une horretan hura ez igortzearen arriskuak aztertuko dira. Era berean, baldin badago, arlo sozialak egindako txostena gehitu behar da. Parte baloratzeko eta prestatzeko irizpideak atxikita doan eranskinean deskribatzen dira (ikus 2. eranskina).

Kontuz ibili behar da alta-txostena egitean, genero-indarkeriaren inguruan bertan jasotako informazioa baloratuta eta kontuan izanik emakumearen segurtasuna dela ziurtatu beharreko lehentasuna. Informazioa historia klinikoan jaso bada, horrek jadanik bermatu egingo du laguntzaren jarraitutasuna lehen mailako arretako edo beste maila bateko haren profesionalekin. Era berean, bidezkoa izan bada lesioen parte bat egitea, dagoeneko ziurtatuta egongo da sistema judizialarekiko komunikazioa. Komunikazioa eta jarraitutasuna bermatuta dauden egoera horietan, alta-txostenean bildutako datuek agian ez dute izango hainbesteko garrantzirik.




4. TESTUINGURUA

OSPITALIZAZIOKO EDO OSPITALEKO KANPO KONTSULTAKO HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA

Gerta daiteke bigarren laguntza-mailako profesional batek, kanpo-kontsultan edo ospitalizazioan zehar, emakumea jasaten ari den indarkeria-egoeraren berri izatea; dituen seinale eta sintomen ondorioz, nahiz emakumeak zuzenean esan diolako.

Emakume batengan genero-indarkeriako kasu bat identifikatzen den une berean, segurtasun-pertsonalari ohartaraziko zaio, laguntzaileen bisitak kontrolatzeko eta, tratu txar emailearen presentziagatik, arrisku-egoerak saihesteko.

HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA hau izango da:



- Emakumeari **ENTZUTEA**.
- Profesionalaren **HARRERA ETA ENPATIA**.
- **ARRISKUAK BALORATZEA**. Emakumeari ospitaleko kanpo-kontsultan arreta ematen badiote eta berehalako balorazioa eskatzen duten arrisku fisiko edo psikologikoak antzemanaz gero, larrialdietako zerbitzura deribatuko da azkar eta segurtasunez, osasuneko eta/edo segurtasuneko profesionalak lagunduta. Horiek ez badute premiazko baloraziorik behar, beste profesional batzuei beharrezkoak diren sail arteko orriak bidaliko zaizkie. Ospitaleko gizarte-laneko profesionalak esku hartuko dute etxerako itzulera antolatzeke eta, premiaz jardutea beharrezkoa bada, udaletako gizarte-zerbitzuekin eta beste erakunde batzuekin koordinatuta jardungo da dagozkion laguntzak abian jartzeko.
- **JARRAITUTASUNA ETA DERIBAZIOA**. Ospitale-altan (edo kanpo kontsultan) mekanismoak ezarriko dira emakumearen laguntza-jarraitutasuna ziurtatzeko genero-indarkeriaren arretan ere. Emakumearen erreferentziazko Lehen Mailako Arretako profesionali informazioa emango zaie zaintzekin jarraitzeko bidetik edo hitzordu presentzialaren edo ez-presentzialaren bitartez, lehen osasun-mailarekin. Profesional horiek arduratuko dira ondorengo jardun-plan bat erraztuko duen Laguntza Geroratuaren Jardunaz. Eta gizarte-laneko profesionalak esku hartu badute, jarraitutasun-neurriak ezarriko dira, baita ere, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin.

- **ERREGISTROA.** Ikus 1. eranskina.
- **JAKINARAZPEN JUDIZIALA.** Ospitalizazio-kasuan, alta-txostena eta zainketekin jarraitzekoa kontuz egin beharko dira, horietan jasotako informazioa baloratuta genero-indarkeriaren inguruan, eta kontuan izanik lehentasuna emakumearen segurtasuna ziurtatzea dela. Informazioa historia klinikoan jaso bada, horrek jadanik bermatu egingo du laguntzaren jarraitutasuna lehen mailako arretako edo beste maila bateko haren profesionalekin. Era berean, bidezkoa izan bada lesioen parte bat egitea, dagoeneko ziurtatuta egongo da sistema judizialarekiko komunikazioa. Komunikazioa eta jarraitutasuna bermatuta dagoen egoera horietan, alta-txostenean bildutako datuek agian ez dute izango hainbesteko garrantzirik.



5. TESTUINGURUA


OSASUN MENTALEKO ZERBITZUETAKO JARDUNA. NAHASMENDU MENTAL LARRIA (NML)

NMLa duten emakumeak genero-indarkeria jasateko zaugarritasun-egoera berezietan bizi direnez, komeni da emakume horiek tratatzen dituzten Osasun Mentaleko taldeetako kideek genero-ikuspegitik lan egitea eta genero-indarkerian berriazko prestakuntza izatea.

Premisa horretatik, badira berriazko gogoeta batzuk emakume horienganako arretarako:

- Emakumeari bakarka egin behar zaio elkarrizketa, eta hasierako ebaluazioan gaiari buruzko zuzeneko galderak sartu behar dira; galdera egokiak eta irekiak izango dira, esan behar duena ondo adieraz dezan. Atea beti irekita utzi behar da etorkizunean gaiari buruz hitz egiten jarraitu ahal izateko. Era berean, gaiari berriro heldu behar zaio aldizka edo susmorik dagoenean. Argi adierazi behar da indarkeria ez dagoela inoiz justifikatuta.
- Proaktiboa izan behar da susmoa eragiten duten egoeren aurrean; adibidez: hitzorduetara behin eta berriz ez joatea, etxean arazoak adierazi nahi ez izatea, haren isolatze soziala areagotzea, etxea uzteko gogoari buruzko iruzkinak, behin eta berriz izaten diren istripuak, lesioak ezkutatzea edo sintoma psikikoak edo fisikoak areagotzea, besteak beste.
- Gure azalpenak ulergarriak izateko ahalegin handiena egin behar dugu. Gai delikatu eta konplexua da. Horregatik, gure kezka bideratu behar da emakumeak esaten dioguna ulertzera eta ahal duen neurrian bere egoeraren ardura hartzera.
- Halakoetan, segurtasun-planek oso esplizituak izan behar dute, gainbegiratze handiaz eta hurbileko laguntzaz.
- Osasun Mentaleko taldeetako gizarte-langileekiko eta gizarte-zerbitzuekiko koordinazioak oraindik askoz ere estuagoa izan behar du. Izan ere, haiek eraginkortasun handiagoaz antzeman eta kudeatu ahal izango dituzte baliabide asko.

NMLa duen emakume batenganako genero-indarkeriako kasu baten aurrean, **HASIERAKO OINARRIZKO JARDUNA** proposatutako eskema orokorrarekin egituratzen da:



- **ENTZUTE** aktiboa. Garrantzitsua da emakumearen kontakizuna zalantzan jarri gabe sinestea, pentsatzen, bere ideiak antolatzen eta erabakiak hartzen lagunduz, eta erabakiak hartzeko bere erritmoa errespetatuz beti.
- Profesionalaren **HARRERA ETA ENPATIA**. Alderdi horretan, berarekin egoera ondo argitu beharra dago, eta gure laguntza ahalik eta modu ulergarrienean adierazi. Sentiarazi behar diogu bera ez dela erruduna.
- **ARRISKUA BALORATZEA**. Oinarrizkoa da haren NMLaren egonkortasun psikopatologikoa baloratzea. Funtsezkoa da, halaber, haren indarkeria-historia eta jasaten duen indarkeria mota zein diren jakitea (urteak, aurrerabidea, graduak), bai pazienteak ematen digun informazioaren bidez, bai Historia Klinikoan eskuragarri dagoen informazioaren bitartez. Era berean, aztertu egin behar dira emakumearen familia- eta gizarte-laguntzako sarea, isolamendu-maila, autonomia-maila, eta haren baliabide ekonomikoak eta sozialak. Baldin badituzte, seme-alaben arriskua baloratu eta erasotzailearekiko egungo harremana zein den jakin behar da, baita banantze-prozesuan dagoen edo etxea uztea pentsatu duen ere (azken hori da arrisku handieneko egoera). Badira alarma-egoera larriak, gizarte-langileen bidez premiazko deribazioa eskatuko dutenak.
- **JARRAITUTASUNA**. Zaintzen jarraitutasuna ziurtatu behar dugu. Horretarako, pazienteak erreferentziazko profesionalarengana deribatu behar dugu, horrek laguntzako esku-hartze luzeagoa, lasaiagoa eta planifikatuagoa egin ahal izateko. Osasun Mentaleko zerbitzuek paziente horien jarraipena egin ohi dute, eta erreferentziazko profesionali informazioa eman behar zaie hasierako arretaren jarraitutasuna ziurtatzeko. Baina, jardunbide egokia izango litzateke, baita ere, Lehen Arretako taldeari egoeraren berri ematea.
- **ERREGISTROA** historia klinikoan: Historia klinikoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 38/2012 Dekretuak honako hau dio 7.3 artikuluan: "Osasun-prozesuan parte hartzen duten profesionalen ohar subjektiboak, pertsonen intimitatean eragina duten datuak, tratu txarren susmoak eta, oro har, behar terapeutikoko egoera bat dela-eta pazienteari jakinarazten ez zaion informazio oro argi eta garbi bereizi behar da historia klinikoan jasotzen den gainerako informaziotik, hura beharrezkoa izanez gero, erraz identifikatu ahal izateko".

Horrek esan nahi du ebolutiboek aparte joan behar dutela, goiburu batekin. Adibidez: INFORMAZIO KONFIDENTZIALA TRATU TXARREN SUSMOAGATIK (Eusko Jaurlaritzaren 38/2012 Dekretua, 7.3 artikulua).

- **JAKINARAZPEN JUDIZIALA**

Arretaren jarraitutasunean, **LAGUNTZA ETA JARRAIPEN JARDUNA** egingo da, haren erreferentziazko Osasun Mentaleko zerbitzuaren eta Lehen Mailako Arretako profesionalen artean koordinatutako eta garatutako irizpide orokorrei jarraituz.



- **EBALUAZIOA.** Hasierako jarduna emakumearen erreferentziazko profesionalak berak eraman badu, nahikoa izango da berriro enpatiaz entzutea eta aldizka arriskuak berriro ebaluatzea.
- **PLANA.** Ekintza-plan bat ezartzea, kontuan izanik baldintzatzaila psikopatologikoak eta sozialak.
- **BARNE KOORDINAZIOA.** Baldin baditu, seme-alabei arreta ematen dieten Lehen Mailako Arretako eta Pediatriako profesionalakiko.
- **KANPO KOORDINAZIOA.** Osasun Mentaleko taldeetan gizarte-langileak egoteak izugarri errazten du koordinatzea eta baterako ekintza-planak ezartzea. Gainera, horiek funtsezkoak izango dira beste gizarte-zerbitzu batzuekiko koordinazioan, horiek genero-indarkeriako egoerarako berariazko laguntzako programak eta baliabideak garatu ahal izango dituzte eta.
- **ERREGISTROA** historia klinikoan (ikus aurreko “erregistroa” atala).
- **JAKINARAZPEN JUDIZIALA.**



6. kapitulua

**GENERO INDARKERIAKO
EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEI
ARRETA EMATEN DIEN OSASUN
PROFESIONALAREN ZAINKETA**

6. GENERO INDARKERIAKO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEI ARRETA EMATEN DIEN OSASUN PROFESIONALAREN ZAINKETA

Gizon eta emakumeen inguruko irudikapen sozialen estereotipoak gure gizartean indarrean dagoen genero-eredu tradizionalaren berezkoak dira. Osasun-profesionalak ez daude horietatik at, eta, batzuetan, lerratu egiten dira indarkeria-egoeretako jardunetan. Jardun lerratu horien ondorioz, emakumeen sintomak eta sufrimendua bazter utzi edo minimizatzen dira edota horiei sinesgarritasuna kentzen zaie. Kontsultategian mota horretako egoeraren bat hauteman edo entzuten bada eta pasatzen uzten bada, hura baliozkotzen da, inplizituki, eta genero-faktore erabakigarrien aurrean ez mugitzeko isilbidezko hitzarmen bat sortzen da. Horregatik, beharrezkoa da profesionalak jarrera aktiboari eustea, autobehaketakoari eta bere jardunbidearekiko ikuspegi kritikoari, eta onartu eta saihestu egin behar dituzte estereotipo horien eraginpean egon litezkeen haien jardun klinikoak³³.

Hala, nabarmendu nahi dugu profesional guztiek beharrezkoa dutela genero-ikuspegiaren prestatzea eta berori sartzea, baita genero-indarkeriaren kasuan ere, beharrezko gaitasunak eskuratzeko eta arreta profesional egokia emateko. Arazoari zorrotz heltzeko eta arreta-prozesuan izaten diren oztopoak gainditzen laguntzeko, funtsezkoa da generoko eredu soziokulturalak, bikotean indarkeria nola sortzen den, prozesua nolakoa den, egoera horrek emakumeentzat dituen ondorioak zein diren ulertzea.

Sarritan, profesionalentzat zaila da jarrera aktibo bat izatea pertsonalki beren gain eragina izan dezaketen egoeren aurrean, hala nola genero-indarkeriako egoeren aurrean.

Batzuetan, frustragarria da ez ulertzea indarkeria-egoera horretan dagoen emakume batek zergatik ez dituen neurriak hartzen bere egoera aldatzeko, berori orientatzeko ahaleginak gorabehera, ez bada ezagutzen indarkeria-zikloa, nola sortzen den eta nola irauten duen.

³³ Velasco Arias, Sara. Recomendaciones para la práctica del enfoque de género en programas de salud. Madrid: Observatorio de Salud de la Mujer, 2009. Disponible en: <http://www.msc.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/equidad/recomendVelasco2009.pdf>

Profesionalek jabetu egin behar dute norberaren baitan emakumeen eta horien erasotzaileen jarrerak eta portaerak sorrarazten dituzten emozioez. Bestela, egoki prestatzen ez badira, esku hartzeko oztopo bihurtzen dira. Arazo horien artean daude profesionalaren gehiegizko inplikazioa edo gaitzespena eta, baita ere, gaitzespena emozionala, eta horrek ondorio psikologikoak izan ditzake.

Autozainketa profesionala funtsezkoa da burnout edo errearen sindromea prebenitzeko³⁴. Autozainketa, jardunbide gisa, norberaren beharren arabera zainketak ematearen sinesmenaz hartu behar du bakoitzak bere gain. Horrek eskatzen du norberaren gabeziak, itxaropenak, zaurgarritasunaren eta, baita ere, indarguneen eta baliabide pertsonalen inguruan pixkanaka kontzientzia hartzeko prozesu bati jarraitzea. Hortik abiatuta, nork bere burua eta ongizate orokorra zaintzera bideratutako ekintzen plan bat presta daiteke³⁵.

Autozainketan erabilgarriak izan daitezkeen estrategien artean, honako hauek adieraz ditzakegu:

- Genero-indarkeriaren konplexutasuna ulertzeko eta esku hartzeko gaitasunak eskuratzeko prestakuntza.
- Profesionalekin informazioa eta esperientziak partekatzeko espazioak bilatzea.
- Norberaren ideien, sinesmenen, bizipenen eta afektuen inguruan kontzientzia hartzea. Hori lagungarria izan behar dugu genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeekiko geure erreakzioak eta erlazionatzeko era ulertzeko, baita aurre egiteko gaitasunak garatzeko ere, emakume haienganako arretan esperientziaren alderdi negatiboak murriztearren.
- Bizitza-eredu osasungarriari jarraitzea eta ongizatean lagunduko duten lan-eremu osasungarriak sustatzea.

³⁴ Maslach, C. (1982). Burnout: The cost of caring. Nueva York: Prentice-Hall Press

³⁵ Cantera, L. & Cantera, F. (2014). El auto-cuidado activo y su importancia para la Psicología Comunitaria. *Psicoperspectivas*, 13(2), 88-97. Recuperado de <http://www.psicoperspectivas.cl> doi:10.5027/PSICOPERSPECTIVAS-VOL13-ISSUE2- FULLTEXT-406



7. kapitulua

TERMINOEN GLOSARIOA

7. TERMINOEN GLOSARIOA

A

Abortu eta antzutze behartuak

Emakume bati bere aurretiazko eta informatutako baimenik gabe abortu bat eragitea eta/edo ebakuntza kirurgiko bat egitea helburu edo emaitza izanik, emakume bati modu naturalean ugaltzeko gaitasunari amaiera ematea, haren aurretiazko eta informatutako baimenik gabe edo prozedura ulertu gabe.

Iturria: 2011ko Istanbulerako Hitzarmenetik egokitua.

Arriskupeko adingabeak

Euren etxeetan indarkeria zuzenean jasaten duten haurrak. Bertan, zapalketako eta kontroleko egoeretan murgilduta egoten dira, eta etxe barruko botere-abusuan eta desberdinkerian oinarritutako harremana bizitzen dute. Zenbait autorek (G. Holden) arrisku hori sor daitekeen moduak sailkatzen dituzte: perinatala, emakume batek haurdunaldian jasaten duen indarkeria fisiko edo psikologikoari dagokionean; esku-hartzearen ondoriozkoa, haurra zerbait egiten edo esaten saiatzen denean biktima babesteko; biktimizazioaren ondoriozkoa, adingabea indarkeria psikologiko edo fisikoaren xede denean emakume heldu batenganako erasoan; lekuko gisa, eraso fisikoak eta/edo hitzezkoak zuzenean ikusten dituenen; eztabaidak eta borrokak entzutearen ondoriozkoa; ikusten direnean erasoaren zuzeneko ondorioak —ubeldurak eta zauriak, hautsitako objektuak eta altzariak, jende arrotzaren presentzia (osasun-langileak, polizia, etab.), erreakzio emozional biziak helduengan, etab.—; amaren eragin fisiko edo emozionalaren ondoriozko aztarnak jasateagatik; gertatutakoaren lekukotasunak entzuten dituenen helduen artean; ezjakintasunaren ondorioz, emakumearen aurkako indarkeria-ekintzak adingabeak bertan ez daudenean edo familia-etxetik urrun gertatzen direnean.

Iturria: Sanmartín et al.ek haurrenganako tratu txar moten inguruko lanetik egokitua: Informe del Centro Reina Sofía sobre el Maltrato Infantil en la familia en España. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011).

http://www.observatoriodelainfancia.mscbs.gob.es/productos/pdf/malt2011v4_total_100_acces.pdf

<https://investe.es/menores-expuestos-a-violencia-de-genero/>

B

Baimendu gabeko pornografia

Ziberesplotazio edo “mendeku pornografiko” gisa ere ezagutzen da. Baimendu gabeko pornografiak berekin dakar argazki edo bideo sexualki esplizituak linean

banatzea, irudietan agertzen den pertsonaren baimenik gabe. Ekintza horien egilea bikotekide ohi bat izaten da, aurreko harreman batean irudiak edo bideoak lortzen dituen eta, horien bidez, asmoa duena biktima jendaurrean lotsaraztea eta umiliatzea, harremanari amaiera emateagatik mendekua hartzeko.

Iturria: EIGE (European Institute for Gender Equality).

E

Egiturazko indarkeria

Egile argirik gabeko indarkeria, gizarte baten egituraren sartuta dagoena eta hark berezkoa duena. Sarritan emakumeengana zuzentzen da eta genero-sozializazioaren, genero-estereotipoen eta indarkeria-mehatxu iraunkorraren bidez eusten zaio. Forma horiek guztiek maltzurki identifikatzen dituzte emakumeak mendekotzat, eta eragina dute haien ekintzetan, maila guztietan. Hortaz, egiturazko indarkeria ulertzen da esplotazio sozialtzat eta botere desorekatutzat (eta, ondorioz, bizitza-aukera desorekatutzat), eta horiek ordena sozialaren parte bihurtzen dira. Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, egiturazko desberdinkeriak eta botere-desorekak emakumeen mendekotasun sozialerako baldintzak sorrarazten dituzte.

Iturria: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Ekonomia- eta ondare-indarkeria

Diruaren eta/edo ondarearen erabilera eta banaketa eskuratzea galarazten duen edo kontrolatzea dakarren egintza oro, eta ekonomia- edo ondare-baliabideak eskuratzeaz gabetzeko mehatxua dakarrena ere.

Iturria: Lanketa propioa.

Emakumeen ahalduntzea

1. Ahalduntzea terminoa ingelesezko “empowerment” kontzeptuaren itzulpen literala da, eta pertsonak edo taldeek “ahalmen gehiago izatea” esan nahi du, hau da: posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren testuinguruan, emakumeek beren buruen eta taldearen kontzientzia hartzearen prozesuarekin dago lotuta; kontzientzia hartzeak aukera ematen die erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze handiagoa izateko, agintera errazago sartzeko eta eragin handiagoa izateko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana).
2. Emakumeek beren bizitzetan aukeraketa estrategikoak egiteko gaitasun gehiago izatea gaitasun hori mugatuta egon ohi zen testuinguruetan;



hori ere esan nahi du. (INSTRAWtik hartua. Kabeer, N. "Reflections on the Measurement of Women's Empowerment"en dago oinarrituta).

3. Genero-ikuspegiaren kontzeptu nagusia. Emakumeen posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea hartzen du barne. Bere helburua sexuen arteko botere-harremanak gutxitu edo ezabatzea da. Garrantzitsua da botere terminoa "zerbaitetarako botere" gisa erabiltzen dela azpimarratzea —adibidez, gizarte-harreman batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta buruzagitza izateko bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak aintzat hartzea eta horren arabera aritzea—, eta ez beste pertsonengan izan dezakegun boterearen arabera ("Aurrekontu Publikoak Genero Klabeak", Emakunde).

Iturria: Emakunde.

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def_adjuntos/GLOSARIO%20DEFINITIVO%20web.htm

Emakumeen aurkako indarkeria

Emakumeen aurkako indarkeriatzat jotzen da sexuaren arrazoiagatik eragiten den indarkeriazko edozein ekintza, edota berekin dakarrena edo ekar dezakeena kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa nahiz sufrimendua emakumearentzat; barne direla ekintza horiek gauzatzeko mehatxuak, hertsapena edo askatasunaren gabetze arbitrarioa bizitza publikoan nahiz pribatuan. Termino horrekin adierazten da, baita ere, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrutik haratago eragiten den indarkeria, batzuetan "indarkeria matxista" deritzona. Hala, kontzeptu horren bidez adierazten dira Istanbulleko Hitzarmenean (2011) jasota daude emakumeen diskriminazioan oinarritutako indarkeria-modu guztiak.

Iturria: Egokitua 4/2005 Legetik, otsailaren 18kotik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakotik. EHAA, 42.a, 2005eko martxoaren 2koa, Istanbulleko Hitzarmena (2011) eta Madrilgo Genero Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2018-2020). http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/29.guia.deporte.pdf

<https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/IgualdadDeOportunidades/Publicaciones/Plan%20Estrategico%20para%20la%20igualdad%202018-2020/ficheros/ANEXOIIIGLOSARIOCONCEPTOS.pdf>

Emakumeen genitalen mutilazioa

Emakume baten ezpain handien, ezpain txikien edo klitoriaren erabateko eszisia, infibulazioa nahiz beste edozein mutilazio; emakumea behartzea ezpain handien, ezpain txikien edo klitoriaren erabateko eszisiaoren, infibulazioaren nahiz beste edozein mutilazioaren mende jartzera; eta neska bat bultzatzea edo behartzea adierazitako edozein ekintzaren mende jartzera nahiz horretarako baliabideak ematea.

Iturria: 2011ko Istanbulleko Hitzarmenetik egokitua.

Etxeko indarkeria

Familiaren baitan edo etxean edota ezkontide nahiz izatezko bikotekide izandakoen edo egungoen artean izaten diren indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoak; kontuan hartu gabe delituaren egileak biktimarekin etxe bera partekatzen duen edo partekatu izan duen.

Iturria: Istanbulleko Hitzarmena, 2011.

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa, edo Istanbulleko Hitzarmena (2011)

<https://www.boe.es/boe/dias/2014/06/06/pdfs/BOE-A-2014-5947.pdf>

Europaren esparruan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, lehen tresna loteslea da; baita hedadura handieneko nazioarteko ituna ere, bi indarkeria mota horiek berekin dakarten giza eskubideak larriki urratzeari aurre egiteko, eta emakumearenganako indarkeriarekiko zero tolerantzia sustatzeko.

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa (Istanbulleko Hitzarmen gisa ere ezaguna da), 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen sinatutakoa, oro har indarrean jarri zen 10 estatu kideek berori berrestearekin batera (Espainiak 2014ko abuztuaren 1ean berretsi zuen). Haren ekarpen handiena da emakumearen aurkako indarkeria dagoela onartzea, bere forma guztietan (indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala; bortxaketa; emakumeen genitalen mutilazioa; ezkontza behartua; jazarpena; abortu behartua; eta antzutze behartua); eta hori giza eskubideak urratzea dela, eta, baita ere, diskriminazio-era bat. Gainera, estatuak arduraduntzat hartzen dira behar bezala erantzuten ez badute.

Iturria: Lanketa propioa.

Ezkontza behartua

Heldu bat edo adingabe bat ezkontzera behartzea, eta heldu bat edo adingabe bat engainatzea, hura bizi den leku edo estatu baten bestelako lurralde batera eramateko, hura ezkontzera behartzeko asmoarekin.

Iturria: 2011ko Istanbulleko Hitzarmenetik egokitua.

G

Generoa

Sozialki eraikitako zereginak, portaerak, jarduerak eta eskuduntzak, gizarte jakin batek eta garai zehatz batean emakumeen edo gizonen berezkozat jotzen dituenak, eta sozializazio-prozesuaren bidez ikasten direnak.

Iturria: 2011ko Istanbulleko Hitzarmenetik egokitua.



Genero-indarkeriaren zikloa

Indarkeriazko elkarreraginak sortzen diren hiru faseetako bakoitza. Horiek lotu egiten dira tratu txarren emailearen eta emakumearen (eta horren ardurapean dauden adingabeen edo mendekotasuna duten pertsonen) artean ezartzen diren botere-harremanetan tirabira areagotzearekin. Hauek dira hiru faseak: tirabira metatzen den fasea; indarkeriak eztanda egiten duen fasea (fase larritzat edo lehertze-fasetzat ere ezagutzen da); eta damutze-fasea (lasaitasun-fasetzat edo eztei-bidaia fasetzat ere ezagutzen da).

Iturria: Lanketa propioa.

Gizakien salerosketa

Pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea edo hartzea, barne dela pertsona horien gaineko kontrola trukatzeko edo transferitzeko, indarkeria, larderia edo engainua erabiltzen denean, edota nagusitasun-egoeraz nahiz biktima baten beharraz edo zaurgarritasunaz abusatzen denean, biktima nazionala nahiz atzerritarra izan; edota ordainketak edo mozkinak ematea edo jasotzea bitarteko denean, biktimaren gainean kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko.

Iturria: Lanketa propioa.

Gorroto-indarkeria edo gorrotoaren, aurreiritziaren edo intolerantziaren ondoriozko krimenak

Honela definitzen dira: biktimaren ezaugarri batekiko aurreiritziaren, intolerantziaren edo gaitzespenaren ondorioz egindako delituak (fisikoak, psikologikoak, azpiegiturakoak edo propagandakoak). Ezaugarri hori izan daiteke erlijio-sinesbidea, sexu-orientazioa, jatorrizko herrialdea, genero-identitatea edota biktima talde jakin bateko partaide egiten duen beste ezaugarri bat.

Iturria: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Grooming

Cybergrooming, childgrooming (adingabeenganako sexu-abusua) edo engainu pederasta ere deitzen zaio, eta honako hau adierazten du: heldu bate —oro har, identitate faltsuaz— egiten duen jazarpena testuinguru birtual batean; horren bidez, adingabe baten konfiantza lortu ondoren, adingabea hertsatzen du gogobetetze sexualaren helburuarekin, adingabearenganako sexu-abusurako nahiz beste fabore sexual batzuk lortzeko, haren irudi erotikokoak edo pornografikoak eskuratzearen.

Iturria: Lanketa propioa.

H

Haurrenganako tratu txarra

Adingabe baten aurka eragiten den edozein eratako indarkeria. Bere baitan hartzen ditu adingabeei kaltea eragiten dieten ekintzak eta/edo omisioak, direla fisikoak (tratu txar fisikoa), kalte emozionalak, kalte kognitiboak nahiz portaerakoak (tratu txar psikologikoa edo emozionala). Haurrenganako tratu txartzat hartzen dira, baita ere, zabarkeriako ekintzak (zabarkeria ulertuta beharrezko zainketak ez ematea edo oinarritzko premiak ez betetzea, barne direla elikadura, higiena, klimara egokitutako arropa, asistentzia eta osasun-zainketak, besteak beste); adingabeen garapenerako funtsezko arretari kalte egiten diotenak; eta abandonua eta sexu-abusua ere.

Iturria: Sanmartín et al.en haurrenganako tratu txar moten inguruko lanetik egokitua: Informe del Centro Reina Sofía sobre el Maltrato Infantil en la familia en España. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011).

http://www.observatoriodelainfancia.mscbs.gob.es/productos/pdf/malt2011v4_total_100_acces.pdf

Indarkeria espiritual

Emakumeen sinesmen kulturalak edo erlijiosoak suntsitzea, zigorraren, barregarri uztearen edo haien sinesmen-sistema propioaz bestelako sistema bat ezartzearen bidez. Bere baitan hartzen du emakumeen sinesmen kulturalak edo erlijiosoak azpiratzea eta ezkutaraztea edota haiek ikuspegi etnozentrikotik analizatzea.

Iturria: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeria fisikoa

Emakumeengan kalte eta lesio fisioak eragiten dituen edo eragin ditzakeen nahita gauzatutako ekintza oro. Bere baitan hartzen du indar fisikoa edo objektuak erabiltzea emakumeen osotasun fisikoaren aurka eraso egiteko (bultzadak, ile-tiratzeak, belarrondokoak, kolpeak, ostikoak, atximurkadak, hozkak, erredurak, genitalen mutilazioa, tortura, itotzea, sastakatzea, erailtzea, etab.).

Iturria: Hauetatik egokitua: Istanbulko Hitzarmena (2011) eta EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeria kulturala

Kulturaren eta gizarte-bizitzaren alderdiak; erlijioak, ideologiak, hizkuntzak, arteak eta zientziak eredutzat finkatutakoak, zuzeneko edo egiturazko indarkeria



justifikatzeko edo legitimatzeko erabil daitezkeenak; horrela, zuzeneko edo egiturazko indarkeria kaltegarria ez dela emateko, edo zuzentzat ere hartzeko.

Iturria: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeria matxista

Indarkeria matxista da: emakumeen, nesken eta arautegitik kanpoko genero-identitatea eta/edo sexualitatea duten pertsonen duintasunari, estimuari eta osotasun fisiko eta mentalari kaltea eragiteko laguntzen duten ekintzak. Egiturazko indarkeria mota bat da, gizarte guztietan eta gizartearen eremu guztietan azaltzen delako, nahiz eta maila desberdinetan gertatzen den eta mekanismo desberdinak erabiliz, hainbat gairen arabera, hala nola arraza, maila eta talde etniko jakin baten partaide izatea.

Indarkeria hori patriarkatuak ezartzen duen desberdintasunaren adierazpena da, eta, era berean, patriarkatuaren jarraipena bermatuko duen tresna da. Hiru eremuren bitartez antolatzen da: indarkeria sinbolikoa, aurreiritziak eta idearioa sortzen dituena; egiturazko indarkeria, diskriminazioa bermatzen duten erakunde guztiekin; eta indarkeria materiala, zuzeneko indarkeriaren adierazpen zehatz guztietan.

Iturria: Asiloari buruzko hiztegia, CEAR Euskadi (2014).

<http://diccionario.cear-euskadi.org/eu/violencia-machista/>

Indarkeria politikoa edo instituzionala

Kode bikoitza erabiltzean datza. Horren bidez, legitimatu egiten da indarkeria-forma edo -adierazpenen bat eta, aldi berean haren beste forma batzuen aurka borrokatzen da. Indarkeriaren aurka ez jardutea, halaber, bete indarkeria-forma bat da. Agertzen da instituzioek (hezkuntzakoek, legegintzakoek, judizialek, etab.) berdintasun-politkarik garatzen ez dutenean edo behar adina garatzen ez dutenean, indarkeriari aurrea hartzeko programarik abian jartzen ez dutenean, indarkeria baimentzen dutenean eta/edo hura jasaten duten emakumeak babesten ez dituztenean, etab.

Iturria: Hemendik egokitua: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeria psikologikoa

Pertsona baten osotasun psikologikoaren aurka larriki eraso egitea, hertsapen edo mehatxu bidez; hala nola: ekintza, normalean hitzezkoa edo ekonomikoa, emakumeengan kalte psikologikoa sorrarazten duena edo sorraraz lezakeena. Bere baitan hartzen du kontrol- eta komunikazio-mekanismoak erabiltzea, haien osotasun psikologikoaren aurka eraso egiten dutenak, baita haien autoestimua

edo kontsiderazioaren aurka ere (bai publikoa, bai pribatua), besteen aurrean. Horien artean, honako hauek daude: emakumea gutxiestea, laidotzea, egiten duena mespretxatzea; errudun sentiaraztea; esklaboa balitz bezala tratatzea; haren fisikoaren inguruko iruzkin lotsagabeak egitea; jendaurrean edo pribatuan umiliatzea; ospe txarra sortzea; behartzea kontuak ematera beste pertsona batzuekiko bere harremanen edo kontaktuen inguruan; bere lagunekin haustera behartzea; beste sexuko pertsonekin hitz egitea debekatzea; haren lagunekiko jeltosia erakustea; broma edo txiste matxistak edo eduki iraingarrikoak egitea; bere ekarpenak edo lanak gutxiestea; irain publikoak edo pribatuak egitea; mehatxatzea eta beldurtzea; xantaia emozionala egitea; bere buruaz beste egiteko mehatxuak egitea beregandik banantzeko nahia adierazten badu; etab.

Iturria: Hauetatik egokitua: Istanbulko Hitzarmena (2011) eta EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeria sinbolikoa

Indarkeria leuna, ikusezina, orokortua, okerreko onarpenaren eta kognizioaren, ezagutzaren eta sentimenduaren bitartez egiten dena; sarritan, menderatutako pertsonen nahi gabeko baimenarekin edo konplizitatearekin.

Pertsonen ekintza-moduetan eta ezagutza-egituretan sartuta dago, eta gizonen menderatzea bereizgarri duen ordena sozialaren zilegitasunaren espektroa ezartzen du. Indarkeria sinbolikoaren adierazpenek egiturazko eta zuzeneko indarkeria onartzen dute.

Iturria: Hemendik egokitua: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Indarkeriaren biktima den emakumea

Generoan oinarritutako indarkeria-ekintzen mende dagoen emakume oro, ekintza horiek emakumearentzat dakartzatenean edo ekar ditzaketenean kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak, barne direla ekintza horiek gauzatzeko mehatxuak, hertsapena edo askatasunaren gabetze arbitrarioa bizitza publikoan nahiz pribatuan.

Iturria: 2011ko Istanbulko Hitzarmenetik egokitua.

L

Lesioen parte genero-indarkeriagatik

Dokumentu mediko-legala da. Honen bidez, osasun-profesionalak osasun-informazioa helarazten dio agintaritzari, genero-indarkeriako delitu bat egon daitekeela jakinarazteko eta indarkeriako auzitegietako medikuek kalitatezko peritu-txostena egin ahal izateko; horretan lesioak balora daitezen eta



emakumeari babes egokia eman diezaioten. Genero-indarkeriaren ondoriozko lesioen parteak, lesio orokorren parteak ez bezala, ofizioz aktibatzen du zigor-espeditente judizial bat, biktimaren borondatea kontuan hartu gabe.

Iturria: Lanketa propioa.

O

Onik atera den emakumea

Genero-indarkeria jasan duen eta bere biktima-rola gainditu duen emakumea, genero-indarkeriak beregan eragindako kalteak konpontzen zentratuta dagoena bere erabateko ongizatea lortzeko.

Iturria: Lanketa propioa.

S

Salaketa genero-indarkeriagatik

Egintza honen bidez, agintaritza judizialari jakinarazten zaizkio —osasu-profesional batek egindako lesioen parte baten bidez— genero-indarkeriako delitu izan daitezkeen ekintzak.

Genero-indarkeriaren ondoriozko salaketa ez da legezko erabateko eginbeharra edozein testuinguru edo inguruabarretan. Indarkeriaren biktima den emakumeak ez badu salatze baimenik ematen, arreta ematen dion profesionalak baloratu egin behar ditu ez salatzearen berehalako arriskuak, eta zuhurtziaz jokatu beharko du. Izan ere, eginbehar morala eta legezkoa du biktimari laguntzeko, tratu txarrari aurrea hartzeko (haren forma guztietan) eta emakumearen interes handiena lortzen saiatzeko, haren borondatea errespetatuz.

Iturria: Lanketa propioa.

Salerosketaren biktima

Edozein pertsona fisiko, haren gainean zantzuak daudenean lan edo zerbitzu behartuak inposatu dizkiotela; edo esklabotza edo esklabotzaren antzeko jardunbideak, morrontza edo eskaletza; sexu-esplotazioa, pornografia barne; delitu-jarduerak egiteko esplotazioa; haren gorputz-organoak erauzte eta behartuta ezkontzea. Pertsona fisiko oro salerosketaren biktimatzat hartuko da arestian deskribatutako jokabideetako baten xede izan denaren zantzuak daudenean, esplotazioa gauzatu ez bada ere eta kontuan hartu gabe ustezko biktimaren aldetik salaketarik dagoen.

Iturria: Lanketa propioa.

Sexu-abusua

Sexu-abusua portaera hitzezkoa, ez-hitzezkoa edo fisikoa da, konnotazio sexualak dituen pertsona batekiko edo talde batekiko, boterearen eta konfiantzaren abusuaren oinarritzen dena. Nahitakoa edo nahi gabekoa izan daiteke. Sexu-abusuak berekin dakar baimendu gabeko jarduera sexual bat, edota baimenik ezin eman deneko bat (neska adingabeen kasuan).

Iturria: Emakunde, "Guía para la prevención de acoso y abuso sexual a mujeres en el deporte. Pautas para un protocolo".

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/29.guia.deporte.pdf

Sexu-erasoa

Pertsona baten aurkako indarkeria fisiko eta sexualeko ekintza bat da, inguruabar hertsagarrietan. Ekintza horrek kalte egiten dio pertsona haren segurtasun pertsonalari eta autonomia sexualari. Horren baitan sar daitezke penetraziorik ez dakarten ekintzak, eta biktimak eta erasotzaileak edozein generotakoak izan daitezke.

Iturria: NBE Emakumeak-etik egokitua. Nazio Batuen Erakundea Genero berdintasunerako eta Emakumeen Ahalduntzerako:

<http://www.endvawnow.org/es/articles/453-definicion-de-agresion-sexual-y-otros-elementos.html?next=457>

Sexu-indarkeria

Baimendu gabeko edozein egintza sexual edo izaera sexualeko egintza bat lortze saioa, beste pertsona batenganakoa horren baimen askerik gabe, edozein dela ere eragilearen eta biktimaren arteko harremana, edozein ingurunetan, barne direla, besteak beste, etxea (ezkontza barruko bortxaketa) eta lanlekua.

Iturria: Hemendik egokitua: EIGE (European Institute for Gender Equality).

Sexu-jazarpena

Nahi ez duen pertsona batekin hitzez edo fisikoki edozein jokabide sexual izatea, horren helburua izanik pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikiltzea; bereziki, beldurtuta, irainduta, umiliatuta edo laidotuta sentiarazteko giroan.

Iturria: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf>

Z

Ziberesestea

Eseste hau egiten da posta elektronikoko bidez, testu-mezuaren bidez (edo linean) edo Internet bidez, iruzkin iraingarriak argitaratuta, edota biktimaren argazki edo bideo intimoak partekatuta, Internet bidez edo sakeleko telefonoaren bidez.



Esesteak berekin dakar behin eta berriz eragindako ekintzak egotea, bereizita kalterik gabeko ekintzak edo ekintza kaltegarriak izan daitezkeenak. Baina, horiek konbinatuz gero, biktimaren segurtasun-sentsazioa ahultzen dute edota larritasuna, beldurra edo alarma sorrarazten dute.

Iturria: Txosten honetatik egokitua: La ciberviolencia contra mujeres y niñas (European Institute for Gender Equality, 2017): https://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/ti_pubpdf_mh0417543esn_pdfweb_20171026164000.pdf

Ziberindarkeria edo sareen bidezko indarkeria

Genero indarkeria, komunikazio elektronikoen eta Internet bidez eragiten dena. Emakume eta nesken aurkako ziberindarkeriak hainbat forma har ditzake; besteak beste: baimendu gabeko pornografia (edo “mendeku pornografikoa”), genero-arrazoen ondoriozko irainak eta jazarpena, “prostituta izatea aurpegiratzea”, “doxing” delakoa (norbaiten datu pribatuak biltzea eta Interneten zabaltzea) eta bitarteko elektronikoen bidez gizakiak salerostea.

Iturria: Txosten honetatik egokitua: La ciberviolencia contra mujeres y niñas (European Institute for Gender Equality, 2017): https://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/ti_pubpdf_mh0417543esn_pdfweb_20171026164000.pdf

Ziberjazarpena

Ziberjazarpenak forma ugari har ditzake. Horien artean, hauek nabarmentzen dira: nahi ez diren posta elektronikoko mezuak edo testukoak (edo linean), sexualki esplizituak, bidaltzea; sare sozialetan edo txateko guneetan intsinuazio desagokiak edo iraingarriak egitea; indarkeria fisiko edo sexualeko mehatxuak, posta elektronikoen bidez edo testu-mezen bidez (edo linean) egindakoak; gorrotorako akuilatzea, hori ulertuta hizkuntza laidogarria, iraingarria, mehatxuzkoa edo erasokoa erabiltzea pertsona baten aurka, haren identitatearen (generoa) eta bestelako ezaugarrien (orientazio sexuala edo ezgaitasuna) arrazoiengatik.

Iturria: Txosten honetatik egokitua: La ciberviolencia contra mujeres y niñas (European Institute for Gender Equality, 2017): https://eige.europa.eu/sites/default/files/documents/ti_pubpdf_mh0417543esn_pdfweb_20171026164000.pdf



8. Kapitulua ERANSKINAK

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA: ERREGISTROA

Erregistroa historia klinikoan egin behar du dagokion profesionalak, emakumeak konfiantza jarri duenekoak; eta hura izan daiteke medikuntzako, erizaintzako, larrialdietako, lehen mailako arretako... Garrantzitsua da osasun-profesionalak nola jardun jakitea emakumea leku egokian hartzeko, konfiantzazko giroan, eta behar den denbora ematea hari entzuten eta haren sentimenduak adieraz ditzan laguntzen.

Egungo informazio-sistemek erraztu egiten dute, historia klinikotik, ikuspegi osatua ematea lehen mailako arretan eta ospitalean sortzen den informazioaren inguruan; eta erregistroak partekatu egiten dira osasuneko pertsonal profesionalaren eta laguntzaren esparru guztien artean. Horrek erraztu egiten du genero-indarkeria jasaten duten emakumeen arreta integrala bermatuko duten erabakiak hartzea.

Ezinbestekoa da osasun-profesionalek egiten dituzten erregistroetan aldakortasuna saihestea eta, baita ere, funtsezkoa da egoera horiek antzematean gutxiegiako erregistroa saihestea, egoeren heldze-lana eta jarraipena bermatzeko. Gainera, dagoen errealitatea deskribatu behar da antzemandako kasuen analisi epidemiologikoaren bitartez.

Historia klinikoan erregistroa errazteko, hobekuntza hauek gaitu dira:

- GIDA komun bat Osabide Globalerako eta Osabide Global Primarioarako. Pertsonal klinikoarentzat lagungarria da erabakiak hartzeko, ezarritako dagoen protokoloan deskribatutako esku-hartzeetan oinarrituta.
- Osanaia-ko 9. domeinuan jasotako aldagai klinikoak integratu dira Osabide Globalean dagoen GI (genero-indarkeria) formularioarekin. Hala, emakume horiei arreta ematen dien edozein profesionalak informazio eguneratua ezagutu eta eskuratu dezake bi aplikazioetan.
- GI formularioaren eguneratzea.
- Check berria Ospitaleko Larrialdietan.
- Check berria larrialdietan jarduteko formulario generikoan.

Tresna horiek diseinatuta daude elkarreraginean lan egiteko. Horrela, historia klinikoaren hainbat puntutatik aktiba ditzake edozein profesionalak jardun-esparru guztietan.

1. GI KODIFIKAZIOA

Genero-indarkeriako episodio bat kodifikatzean edozein testuingurutan (Larrialdiak, Lehen Mailako Arreta nahiz bestelakoak), kodetzailea irekitzen da beste edozein prozesutarako bezala. Bilaketa gako-hitzaren bidez egiten da: tratu txarrak, indarkeria... Bilatzaileak eskuragarri dauen kode guztiak eskaintzen ditu (gogokoetan ere daude).

Genero-indarkeriarekin lotutako GNK kodeak:

TRATU TXAR MOTA	GNK-10-ES		
	EGIAZTATU	SUSMOA	HAURDUNALDIAN
FISIKOA	T7411XA	T7611XA	09A319
SEXUALA	T7421XA	T7621XA	09A419
PSICOLOGIKOA	T7431XA	T7631XA	09A519
ZEHAZTU GABE	T7491XA	T7691XA	

Jarduera mota	Gakoa	Jardueraren deskribapena
Diagnostikoa	T7491XA-T7491XA	Tratu txar egiaztatuak
Diagnostikoa	T411XA-T411XA	Tratu txar fisiko egiaztatuak
Diagnostikoa	09A319-09A319	Tratu txar fisikoak haurdunaldian
Diagnostikoa	T7431XA-T7431XA	Tratu txar psikologiko egiaztatuak
Diagnostikoa	09A519-09A519	Tratu txar psikologikoak haurdunaldian
Diagnostikoa	T7421XA-T7421XA	Tratu txar sexual egiaztatuak
Diagnostikoa	09A419-09A419	Tratu txar sexualak haurdunaldian
RIC elementua	94549	Erasotzailearekiko harremana
